

Josu Landari elkarrizketa

Interview with Josu Landa

JON MENTXAKATORRE ODRIOZOLA ETA AITOR ZUBEROGOITIA ESPILLA*

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (Mondragon Unibertsitatea)

LABURPENA. Elkarrizketa honek Josu Landa filosofo eta poetaren ibilbide intelektuala eta bizitza-esperientzia jorratzen ditu, Euskal Herriko diasporaren testuinguruan kokatuta. Venezuelan jaioa eta Mexikon errotua, Landak erbesteak, identitatea, hizkuntza eta kultura ardatz hartuta hausnartzen du, bereziki *Zarandona* eleberraren bidez euskal diasporari emandako ahots literarioaren inguruan. Elkarrizketan, erbeste politikoaren belaunaldi-hausturak, euskara eta autogorrotu linguistikoaren auzia, eta kultura-politikaren garrantzia aztertzen dira, bai Euskal Herrian, bai Amerikako testuinguruetan. Bigarren zatian, Landak poesiaren eta filosofiaren arteko lotura funtsezkoa defendatzen du, biak zentzurako bide osagarri gisa ulertuta, eta humanismoaren krisiaz gogoeta eskaintzen du, deshumanizazio teknologikoa-ren, kulturaren gainbeheraren eta etikaren eronken aurrean. Arizmendiarietaren kooperatibismoa eta pentsamendu humanista ere eztabaidagai dira, gaur egungo gizarte-ereduak berriakurtzeko giltzarri gisa.

GAKO-HITZAK: euskal diaspora; euskara; identitatea; poesia eta filosofia; humanismoa.

ABSTRACT. *This interview explores the intellectual trajectory and life experience of philosopher and poet Josu Landa within the context of the Basque diaspora. Born in Venezuela and long settled in Mexico, Landa reflects on exile, identity, language, and culture, with particular attention to his novel Zarandona, widely regarded as a foundational literary work emerging from the Basque diaspora. The discussion addresses generational tensions linked to political exile, questions of Basque-language transmission and linguistic self-denigration, and the role of cultural engagement both in the Basque Country and in Latin America. In its second part, the interview examines Landa's understanding of poetry and philosophy as complementary paths toward sense, alongside his critique of contemporary processes of dehumanization, the erosion of culture, and current ethical challenges. The legacy of cooperative humanism —especially through the figure of José María Arizmendiarieta— is also considered as a key reference for rethinking present-day social and political models.*

KEYWORDS: *Basque diaspora; Basque language; identity; poetry and philosophy; humanism.*

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Jon Mentxakatorre Odriozola eta Aitor Zuberogoitia Espilla. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Mondragon Unibertsitatea, Dorleta auzoa z.g., 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa) – jmentxakatorre@mondragon.edu eta azuberogoitia@mondragon.edu

Nola aipatu / How to cite: Mentxakatorre Odriozola, Jon; Zuberogoitia Espilla, Aitor (2026). "Josu Landari elkarrizketa", *Gogoia*, 26, 85-120. (<https://doi.org/10.1387/gogoia.25855>).

Jasoa: 2026-04-01. Onartua: 2026-05-06. Aurrean online argitaratua: 2026-05-18.

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziapean dago

Asteburuan Bilbon barrena paseatuz euskara-kontuetan mugarri izaniko zenbait leku eta pertsonaiaren gorabeherak elkarrekin errepasatu eta Kafe Antzokian bapo bazkalduz girotze-lanak egin eta gero, hiru egunen buruan Mondragon Unibertsitateak Bizkaiko hiriburuan daukan AS Fabrik campusean —Deustuko Erriberak eta Zorrotzaurrek bat egiten duten lekuan— geratu gara berriro Josurekin patxadaz solasteko, 2025eko ekainaren 4ko goiz lainotsuan. Gure arteko autuak emaniko fruitua dakargu honenbestez orriotara, bi ataletan antolatua.

1. Euskal sustraiak

Jon Mentxakatorre eta Aitor Zuberogoitia: *Caracasen jaio zinen 1953an. “Euskal filosofo venezuelar-mexikar” modura izendatzen zaitu euskarazko Wikipediak. 1988tik Mexikoko UNAMen Filosofia irakasle. Obra zabala-
ren egile: dozenaka lan argitaratuta, batez ere poesian eta saiakeran. Horietako bat hartuko dugu abiapuntu, Zarandona (2000), zure euskal sustraiaren inguruan berbetan hasteko. 1936ko gerratik ihesi Ameriketara joan den Paulino Zarandonaren eta bere familiaren gorabeherak kontatzen dira bertan: 1950ean joan zen bera Caracasera, eta 1953an jaio zinen zu Caracasen bertan. Liburuan kontatzen denez, etxean euskal giroa oso presente zegoen, debekatuta zeneukaten gaztelaniaz hitz egitea, euskaldun asko zegoen garai hartan Caracasen... Zelan bizi zenuen zuk hori guztia? Zelan joan zinen zure identitatea eraikitzen?*

Josu Landa: Datu garrantzitsu bi aipatu behar dira hasteko: *Piedra de sol*, Octavio Paz-en poema handi bat euskaratu nuen (*Eguzki harria*),¹ eta baita Mexikon xx. mendean egin zen poemarik garrantzitsuen ere, nire ustez, Jose Gorostizaren *Muerte sin fin* (barakaldar baten seme zen Gorostiza), *Amai-bako heriotza*.² Horiek tarteko, Mexikon jende askok du Euskal Herriarekin eta euskararekin daukadan harremanaren berri. Hori baino lehen, Venezuelara joanda, zer giro zegoen nire umezaroan Caracasen? Badakizu Ameriketak (lehen esaten zen moduan) toki egokiak izan zirela frankismoaren aurka zebiltzanak salbatzeko, haiek bizirik iraun eta beste bizimodu bat eraiki ahal izateko. Hainbeste euskaldun iritsi ziren Ameriketara, gauza jakina da hori, baina, halan eta guztiz, ez dira berdinak Argentinako euskal jendea edo Mexikokoa, Uruguakoa edo Txilekoa; Kuban eta Antilletako irletan ere bazeuden batzuk. Euskal komunitate handiena, hori bai, Venezuelakoa zela uste dut. Venezuelen petrolioaren zegoen, eta ekonomia desarrollista indartsua garatu zen diktadoreen menpean. Nire aita Venezuela iritsi zenean Marcos Pé-

¹ Octavio Paz Lozano (1914-1998) mexikar poetaren *Piedra de sol* (1957) poema euskaraz eman zuen Landak, 1997an.

² Jose Gorostiza Alcalá (1901-1973) mexikar poetaren *Muerte sin fin* (1939) poema euskaraz eman zuen Landak, 2009an.

rez Jiménez-en diktadura zegoen,³ ni diktadore horren menpean jaio nintzen. Beti egon naiz diktadoreen menpean: Pérez Jiménez, Franco⁴ gero —Euskal Herrian hamar urte egin nituen—. Umea nintzen arren, badauzkat nik irudi bizi batzuk hango euskal komunitatearen indarraren erakusgarri direnak: nik Agirre lehendakaria⁵ umetan ezagutu nuen, hara joan zenean.

JM eta AZ: *Venezuelako euskal komunitatearen bereizgarrietako bat izan liteke oso politikoa izatea, EAJren inguruan egituratua?*

JL: Mexiko zen politikoki nukleorik gogorrena, Espainiako Errepublikako gobernua han zegoelako, eta, nik dakidanez behintzat, denbora batean behi-nik behin, EAJkoek gobernu horretan jarraitu zuten gerraostean. Gero gauzak nahasten hasi ziren, hori bai. Venezuelen, instituzionalki beharbada ez zen EAJ egongo, baina bere militanteak ziren han indar handiena zeukate-nak; hain zegoen jende asko hor, eta hain zen indartsua ekonomia... Den-bora hartan Radio Euzkadi existitzen zen, eta hori Venezuelatik ateratzen zen, hango mendi bateko oihas batetik, eurek bakarrik zekiten non zegoen hori, beste inork ez, eta hortik transmititzen zen Euskal Herrira.⁶

JM eta AZ: *Euzkadi hori zetaz idatzitakoa izango zen, ez?*

JL: Bai noski, dena zen z-rekin orduan, kar-kar-kar...

1.1. Euskal diaspora

JM eta AZ: *Zarandonan Paulino Zarandona eta haren seme Mikel eta Ima-nolen arteko gorabeherak dira ardatz. Imanol intelektuala da, kapitalismoaren aurkako borroketan murgilduta dabil... Zenbat dago hor autobiografikotik? Zerk motibatuta idatzi zenuen?*

JL: Ni poeta naiz narratzaile baino gehiago, askoz gehiago gainera. Nik ez neukan asmorik inoiz narratibari sartzeko, baina zer gertatzen zen? Iruditzen zitzaidan penagarria zela diaspora barrutik narratiba propiorik ez ateratzea; harrigarria zen hori niretzat: zelako bizimodua zeukaten, zelako esperientziak bizi izan zituzten, eta ez sortzea barrutik hori... Bazeuden euskal idazleak, Eus-kal Herriatik bertara joanak: Martin Ugaldek, adibidez, Venezuelen egin zuen hainbat lan, eta pertsona preziatua izan zen, idazle modura errespetatua.⁷ Baina zergatik diaspora barrutik ez zen ezer sortu? Inork ez zuen ezer idatzen.

³ Marcos Pérez Jiménez (1914-2001) militarra Venezuelako buru izan zen 1953-1958 artean.

⁴ Francisco Franco Bahamonde (1892-1975) militarra Espainiako buru izan zen 1936-1975 artean.

⁵ Jose Antonio Agirre Lekube (1904-1960) politikari jeltkidea Eusko Jaurlaritzako lehen lehen-dakaria izan zen, 1936-1960 artean.

⁶ Radio Euzkadi Erbesteko Eusko Jaurlaritzak 1965-1977 artean sustatutako irratia izan zen.

⁷ Martin Ugalde Orradre (1921-2004) kazetari, idazle eta politikaria izan zen, Erbesteko Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde (1972-1975) Jesus Mari Leizaolarekin. 1947-1969 artean Venezue-

JM eta AZ: *Euskarazko Wikipediak dio Zarandona dela “euskal diasporari buruzko lehen eleberri endogenoa”.*

JL: Hori egia da. Batzuk hemen hasi ziren ikertzen ea hori egia ote zen eta arrazoa eman zidaten: besterik ez du inork ezagutzen, diaspora barrutik eginiko lanik, hango atmosfera zelakoa zen esanez. Horregatik ausartu nintzen narratiban sartzen, nik betidanik landu izan ditudanak poesia eta filosofia diren arren: norbaitek esan behar zituen gauza horiek, zer gertatu zen, zer bizi genuen guk... Horrez gain, exilioaren munduan bereizketa egin beharra dago: gauza bat da euskotarren diaspora eta beste bat *el exilio español*. Espainolek eurek hartzen dute eremu guztia eurentzako, horrela ibiltzen dira gehienetan, baina euskaldunak ere aparte ibiltzen ziren beti. *Exilio español* horrek ez gintuen euskaldunak kontuan hartzen.

Badira 43-44 urte Mexikon bizi naizela eta iaz izan genuen, nire ustez lehenengoz, euskotarren exilioaren inguruko gaiak jorratzeko mahai-inguru bat. Ordura arte leku guztietan *exilio español* eta *exilio español*: Eugenio Imaz,⁸ Ertze Garamendi lekeitiarra⁹ eta beste batzuk hor izan dira eta euren jarduerak eta gauzak egin dituzte, eta bietatik bat, edo ez zituzten aipatzen, edo Eugenio Imazen kasuaren moduan, *exilio español* barruan sartzen zituzten, euskara baztertu zutelako. Baina esan nahi dut horiek ere euskotarrak zirela eta ez zituztela kontuan hartzen.

Hori da bat, eta beste bat, garrantzitsuagoa oraindik, beste hau: exilioari buruzko narratiban —ez zait asko gustatzen hitz hori— protagonistak beti indartsuenak dira: zuzendariak, filosofo eta idazle garrantzitsuenak, uni-bertsitate irakasle handiak Sánchez Vázquez,¹⁰ adibidez. Badago gutar bat, ordea, komunista zena, nik asko maite dudana pertsona, Federico Alvarez donostiarra,¹¹ Txillardegiren¹² lehengusua zena —Txillardegi Alvarez Enparantza zen, eta hau, aldiz, Alvarez Arregi—. Gehienak irakasleak ziren, jende oso garrantzitsua. Langileak, nekazariak, mekanikariak —nire aita mekanikaria zen—, euren eskuekin lan egiten zutenak, non daude narratiba horretan? Nik ez nituen ikusten. Adolfo Sánchez Vázquez, Partido Comunista de España-ko andaluziar bat, filosofo bikaina zen, ezagutzen nuen, eta hori onar-

lan bizi izan zen eta *Elite* aldizkariaren ardura izan zuen. Hamaika edizio izan dituen *Síntesis de la historia del País Vasco* liburua eman zuen argitara, 1974an.

⁸ Eugenio Imaz Etxebarria (1900-1951) Donostian jaiotako filosofoa izan zen, 36ko gerraren ondoren Mexikon ibilbidea egin zuena.

⁹ Ramon Ertze Garamendi (1911-1974) apaiz, pentsalari eta idazle humanista izan zen.

¹⁰ Adolfo Sánchez Vázquez (1915-2011) bizitzaren zatirik handiena Mexikon eginiko espainiar filosofoa izan zen.

¹¹ Federico Alvarez Arregi (1927-2018) Donostian jaiotako idazle eta irakaslea izan zen, bizitzaren zatirik handiena Mexikon egin zuena.

¹² Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi (1929-2012) donostiar ingeniari, pentsalari eta politikaria izan zen, euskalgintzan hamaika lan egindakoa.

tzea bidezkoa da, baina besteak non daude? Desagertuta, guztiz desagertuta. Nik ez nuen horietako inor ikusten narratiba horretan, ez langilerik, ez herriko jenderik... Orduan esan nuen, beno, nik Zarandona asmatuko dut. Kar-kar-kar Zarandona baserri-izena da

JM eta AZ: *Eleberrian erbesteko bi belaunaldiren arteko harreman zenbaite-tan konplikatua islatzen da.*

JL: Belaunaldien arteko talka, momentu batean, zeren EAJrena zen hura guztia. Behin hemen, Euskal Herrian, sortu zenean beste polo bat, beste mugimendu bat, horrek nahiko efektu gogorra eduki zuen Ameriketara, Mexikon eta Venezuelara batik bat.

JM eta AZ: *Hemengo oihartzunak ailegatzen zitzaizkizuen, hortaz.*

JL: Bai, bai, bai. Gazteen artean batez ere, eta ez hain gazteen artean ere bai. Egin kontu: Telesforo Mexikon bizi zen, eta hura eredu garrantzitsua izan zen ezker abertzalean.¹³ Egin kontu non bizi ginen gu: tropikoan, Mesa de Guanipako sabanan. Euskal Etxea zegoen hor, pentsa, sabanan. Agirre horra joan zen, eta haren ondoren beste batzuk. Gogoan daukat ni gazte nintzela bera han ikusi izana. Leizaola¹⁴ El Tigrito herriko euskal etxera ere joan zen. Puerto La Cruzera bazegoen beste euskal etxe handi bat, Caracasekoa zen handiena, Cumanan ere bazegoen beste bat, baita beste batzuk ere Mendebaldean, Valencian eta hor inguruan, baina ez ziren hain handiak. Beraz, pentsa: Venezuela barruan, Orinokotik hurbil behintzat, Mesa de Guanipara, euskal etxea zegoen, eta horra joaten ziren Agirre eta Leizaola.

Gogoan daukat zelan gu ez ginen mugimendu artikulatua, baina ez geunden konforme, eta ez ginen isiltzen, eta gauzak esaten genituen, eta deserosoa izaten zen. Gero, Franco hil zenean, gehienak joan egin ziren, beste batzuk hil, eta euskal etxe hori saldu egin zuten. Puerto La Cruzeko euskal etxea ere itxita dago, guztia hautsez betea, penagarri, abandonatuta, eta inork ez du ezer egiten. Hemengo Jaurilaritzak zerbait egin behar luke, baina... Penagarria da hara joan eta hori ikustea.

JM eta AZ: *Belaunaldi baten kronika ere bada, ezta? Honela deskribatu duzu zuk liburuan: "... bizitza arriskatu zuen, oso gazte, frankismoaren aurkako borrokan. (...) Amerikara emigratu zuen porrotak eta umiliazioak ez ziotelako beste biderik utzi. (...) demokrazian sinetsi zuen beti. Irentsi egin zuen (...) munduko demokratek Franco, haren erregimena bideraezina egin arte, isolatuko zutelako kontua. Hori gertatu ez zenez, zure gorroto berberaz itxaron zuen diktadorea hil zedin. Hori ere behar zen garaian gertatu ez zenez, urteak metatuz eta*

¹³ Telesforo Monzon Ortiz de Urruela (1904-1981) lehen Eusko Jaurilaritzan politikari jeltkidea eta Herri Batasunaren sortzaile edo erreferente garrantzitsua izan zen.

¹⁴ Jesus Mari Leizaola Sanchez (1896-1989) politikari jeltkidea Agirre hil ondorengo Erbesteko Eusko Jaurilaritzako lehendakaria izan zen.

sustraiak eta sustrai gehiago botaz jarraitu zuen (...) sabana beti iheskor eta trai-dorean. Herrira erretiratzea pentsatzeko ordua iritsi zenean, geratzen ziren senide eta lagunekin batera, bolibarraren devaluazioak eta inflazio oso azkarrek ilusio hori desagerrarazi zuten. (...) Beraz (...) harapatuta eta bakar-bakarrik geratu zen Guaicaipuroko hareatzetan, ekonomikoki, politikoki eta moralki desegindako herrialde batek eskaintzen zion etorkizuna bezain mugiezin eta zalantzazkoetan” (Landa 1999: 31-32).¹⁵ Euskal Herriko ametsa hondatu zitzaion, Venezuela bera hondatu zen gero...

JL: Amets horrengatik bidali gintuen gu hona, Euskal Herrira, hamar urterako nire anaia eta ni, eta, gu bezala, hainbeste... Praktika ezaguna zen hori, seme-alabak Euskal Herrira bidaltzea paketeen modura... Kar-kar-kar... Hori gauza gogorra da. Horregatik, belaunaldiek talka egiten dute gero... Zelan bidal litezke seme-alabak hamar urterako, aita eta ama barik? Senide artera bidali gintuzten, egia da, Lekeitio eta Donostiara; Lekeitio umetan, hamaika urte egin arte, eta gero Batxilergoa egitera Tolosara lehenengo eta Donostiako La Sallera gero, Loiolako kolegiara. Oporretan eta, berriro Lekeitiora, hori zen gure tokirik garrantzitsuena, baina Donostian oraindik ere badaukat hainbeste senide, lehengusuak eta euren seme-alabak.

Belaunaldien arteko talkara bueltatuta, gauza asko daude hor: belau-naldi desberdinak izatea puntu bat da. Beste bat, gure egoera berezia. Askok ez du horren berri, ez du bizi izan. Nik uste horrek ere badauela zerikusirik. Gero, politikako gauzak ere badaude, eta hor zenbait gauza esan behar da. Gu handik etorri ginenean, umeak ginen: nik zazpi urte nituen, nire anaiak bost. Guretzat normala zen ikurrina eta horrelako sinboloak eta gauzak ikus-tea, eta hona etorri eta horiek galarazita daudela eta kontuz ibiltzeko eta “zer darabilzue?” eta “zer diozue?” eta “ez esan ezer”... “Hau zer da?”, esaten genuen. Guk euskaraz bertan, Venezuelen, nik uste gehiago egiten genuela Euskal Herriko toki batzuetan baino. Hori zelan da, txo? Venezuelako saba-netan gu euskaraz eta hemen toki askotan euskara ahaztuta, edo baztertuta, jende asko lotsatuta... Gure egoera, berriz, nahiko berezia zen. Guretzat, EAJ zer zen... Beste umeek ez zekiten ezer. Zer zen EGI, Euzko Gaztedi Indarra? Guk bagenekien hori, 7-8-9-10 urterekin. Gainera, guk kolegioan pintake-

¹⁵ [...] arriesgó su vida, muy joven, en la lucha contra el franquismo. (...) emigró a América porque la derrota y la humillación no le dejaron otro camino. (...) creyó siempre en la democracia. Se tragó (...) el cuento de que los demócratas del mundo aislarían a Franco hasta hacer inviable su régimen. Como eso no ocurrió, esperó con el mismo odio que tú a que el dictador muriera. Como tampoco sucedió esto a su debido tiempo, fue acumulando años y echando raíces y más raíces (...) en la sabana siempre esquivia y traicionera. Cuando llegó la hora de pensar en retirarse al pueblo, junto con los familiares y amigos que quedaran, la devaluación del bolívar y la inflación galopante acabaron con esa ilusión. (...) De modo que (...) se quedó atrapado y solo en los arenales de Guaicaipuro, tan movedizos e inciertos como el futuro que le ofrecía un país económica, política y moralmente deshecho.]

Aipu hau eta gainerako guztiak elkarrizketaren egileek itzuli dituzte euskarara.

tak egiten genituen, *Gora Euzkadi askatuta* eta horrelakoak, kar-kar-kar. Guretzako naturala zelako, baina gure alboan, beste umeeek-eta ez zekiten horrelakorik ezer, asko gainera aurka zeuden...

1.2. Euskara

JM eta AZ: *Etxean gaztelania debekatuta zeneukatela esan duzu, eta erbesteetan espainolek euskaldunekiko distantzia hartzen zutela, haiek euren hizkuntzari eta ohiturei eusten zietelako...*

JL: Distantzia, baita euskaldunek espainolekiko ere.

JM eta AZ: *Eta egoera hori, etxean gaztelania debekatuta izatea-eta, zeure kasua izan zen ala praktika komuna zen?*

JL: Ez dut uste hain praktika zabala zenik. Hor fenomeno linguistiko bat dago: jendea lotsatu egiten zen ustez baserritarrena zen hizkuntzan berba egiteaz.

JM eta AZ: *Soziolinguistikan autogorrito modura izendatzen dena, ezta?*

JL: Bai, eta diglosia hedatzen da. Nik umetatik susmatuta neukan hori, zelan euskaldun askok ez zuten euskaraz egin nahi baserritarren hizkuntza zelako. Zergatik ibiliko da inor umeei euskaraz irakasten gero horrek ezertarako balio ez badu? “Ez, bota hori, ahaztu...”. Hori euskaldunen artean, Euskal Etxean ikusten nuen nik hori. Batzuetan gu baserritarrak bagina legez baztertzen gintuzten, euskaraz egiten genuelako. Beste askok, bai, bazuten kontzientzia, eta nik, gainera, asko eskertzen diot nire aitari etxean horrelako neurriak hartu izana, horregatik dakit-eta nik euskaraz. Behar den beste ez, ordea, kar-kar-kar.

JM eta AZ: *Zarandonara itzulita, badago beste eleberri bat kontrako bidea kontatzen duena, Martin Ugalderen Itzulera baten historia (1990), baina kasu horretan Caracasetik Euskal Herrira bueltan datorren emakume baten istorioa da. Ezagutzen zenuen? Martin Ugalde bera ezagutzera iritsi zinen?*

JL: Ez. Martin Ugalde nor zen banekien, Euskal Herriaren historia txiki bat egin zuelako, niretzat pertsonalki garrantzitsua izan zena. Horrez gain, ipuinak ere idazten zituen eta Venezuelen famatua izan zen aldizkari bat zuzentzen zuelako —petrolio-enpresa baten kultur aldizkari garrantzitsu bat—. Martin Ugaldek presentzia handia zeukan eta bagenekien nor zen, baina diaspora barruan ez zegoen ezer.

Zer zegoen barruan? Nik uste hori bai izan zela nahiko kaltegarria, euskaldunentzat eta edonorentzat, baina euskaldunei buruz ari gara. Kontua da hor ere humanismoa, humanitateak, baztertu egin zirela. Dena zen negozioa, teknologia, semeak abokatutzara, ingeniartzetara edo kontabilitatera

bideratzea. Ni hor ere oker atera nintzen, kar-kar-kar, filosofia, soziologia eta poesiara joan bainintzen, hori zen nire joera.

Nortzuk ginen horrelakoak? Nik ez neukan beste lagunik. Guztiak ziren bankuetako gerenteak, enpresetako exekutiboak, ingeniariak... Horrelakoak ziren, horrela da orain ere, baina gure kasuan uste dut kaltegarriago dela: horiek mespretxatu egiten dute euskara eta euskal kultura, kulturak ez du balio haien-tzat, eta, euskarazkoa bada, gutxiago. Gainera, hemengo politikariak... Bada-kigu indarkeria, hilketak eta heriotzak egon direla hemen. Nik beti esan dut: indar hori kulturara eraman izan balitz, bakez, beste egoera bat izango genuke.

Umetan eta gaztetan neu ere hor egon nintzen, baina gero, arrazoia behar den beste erabiliz gero, konturatu nintzen hori akats handia izan zela, huts itzela. Kulturaren egin behar zen ahalegina, ez gerran, eta Ameriketara gehiago gainera. Kulturaren mentalitate hori eduki behar du. Hori gabe, zer? Besteekin batera urtu, gauzak ahaztu, eta gero bigarren belaunaldikoek ez da-kite euskararik, eta Euskal Herria txistorra jan eta musean jokatzeak kontua zaie; kirolak eta horrelako kontuak, toki polita, ederto jaten den tokia, tu-rista modura bizi duguna.

JM eta AZ: *Martin Ugalderengana itzulita, bera gero hasi zen euskaraz idaz-ten. Ezagutu zenuten euskararekiko bere aldaketa hori?*

JL: Nik ez behintzat, agian bere hurbileko lagunek bai. Beste arazo bat eduki genuen hor: ez genuen euskaraz ikasteko aukerarik izan, zuek izan du-zuen moduan. Nik inoiz ez nuen izan horrelako aukerarik. Ni Caracasen jaio arren, lau urte neuzkala nire familia El Tigrera joan zen. Haren ondoko El Ti-griton Euskal Etxea zegoen, eta hara biltzen ziren inguruko euskaldunak as-teburu guztietan, Aberri Egunean eta horrelakoetan. Ez nuen aukerarik izan, beraz, euskaraz ikasteko, eta nik uste hori bekatua dela.

1.3. Erroak

JM eta AZ: *Bikoiztasun bat etengabe ageri da Zarandonan, liburu-hasierako eskaintzatik bertatik: "Joan zirelako geratu zirenei" (Landa 1999: 7).¹⁶ Liburu-amaieran, berriz, hau dio Paulino Zarandonak: "Beste inon baino luzaroago bizi izan naiz hemen. Aspalditik nekien, baina ametsak ikusarazi zidan jada barruan daramadan zerbait dela. Guaicaipuroko sabanek pisu handiagoa dute orain he-rriaren mendiek baino norberaren ariman" (ibid.: 177).¹⁷ Eta apur bat aurrerago,*

¹⁶ Aipu hori jatorrizkoan bi hizkuntzatan dator: "Joan zirelako geratu zirenei. A los que se quedaron porque se fueron".

¹⁷ [He vivido aquí más tiempo que en ninguna otra parte. Bien que lo sabía de hace mucho, pero fue el sueño el que me hizo ver que es algo que ya llevo dentro. Las sabanas de Guaicaipuro pesan más ahora que las montañas del pueblo en el alma de uno.]

Zarandonak berak: “Esan nahi dut orain zapaltzen ari garen lur honek [Venezue-lak] eskubide gehiago izan dezakeela nire gain herriko [Lekeitioko] hilerriak baino” (ibid.: 178).¹⁸ Eta, hori entzunda, semeak bere bostean zera dio: “Agian, Zizili zeure amaren altzoa mundu osoan barreiatuta dago eta Guaicaipuroko hareetan ere badago” (idem).¹⁹

Ricardo Venegasek 2012an eginiko elkarrizketa batean, berriz, honako hau diozu: “Ez naiz aberrigabea, aberri askotako gizona baizik, eta horregatik beragatik egiazko aberri bakarrekoa: unibertsoa eta bere jariora, logos poetikoa. Senide oso hurbilak eta lagun minak ditut hiru herrialdeetan, baina nire azken aberria hitz poetiko eta teorikoa da. Ez naiz deserrotua, lurralde askotan sustrai asko dituen norbait baizik, baita airean ere, kasuan kasu, eta poz handiz bizi dut”.²⁰

JL: Ni pertsona normala naiz, baina filosofoa ere bai, eta filosofoa ez da normala, kar-kar-kar, eta poeta ere bai... Horrek zer esan nahi du? Ni munduko hiritarra naiz, filosofiaren aldetik hori naiz, ezin dut hori ukatu, baina horrek ez du esan nahi hainbat lekutan sustraiak ez ditudanik. Ni joaten nai-zen tokira, horkoa izango naiz, e? Euskaldunak hori izan dira beti: Amerike-tara joan zirenak-eta, han ere sustraitu ziren, hemengo sustraiak ahaztu ba-rik. Horrek zera esan nahi du: nire unibertsaltasunak sustrai lokalak dituela. Ezin da gizaki izan sustrai konkreturik gabe, baina, horretan soilik gera-tuz gero, gutxitu, murriztu egiten da bat. Unibertsaltasunera ireki behar da. Baina hori unibertsaltasun hori hutsa bada, horrek ere ez du balio. Nik oreka hori nahi dut bizi, hortxe bizi naiz ni.

JM eta AZ: Horren harira, aipu esanguratsu hau atera dugu Zarandonatik: “(Ekin berriro, zaharra. Apaltasuna eta fideltasuna: benetako euskal baserritarra-ren bi izurriteak. Zuri, nahiz eta urte asko daramazun zure lursailetik kanpo, ez zaizu onartuko hori izateari uztea. Imanolek dioen modura: ‘Subjektu modernoaren eremura pasatzea’. Tira... ez daukazula erremediorik)” (Landa 1999: 176).²¹ Handia²² filmak irudikatzen zuen tentsioa duzu hizpide, Modernitateak euskaldu-nari dakarkion erronka...

¹⁸ [Quiero decir que esta tierra que ahora pisamos (Venezuela) puede tener más derecho sobre mí que el cementerio del pueblo (Lekeitio).]

¹⁹ [A lo mejor, el seno de tu propia madre, Zizili, está esparcido por el mundo entero y está también en las arenas de Guaicaipuro.]

²⁰ [No soy un apátrida, sino un hombre de muchas patrias, y, por ello mismo, de una sola verdadera: el universo y su emanación, el logos poético. Tengo familiares muy cercanos y amigos íntimos en los tres países, pero mi patria última es la palabra poética y teórica. No soy un desarraigado, sino alguien con muchas raíces en muchas tierras, incluso en el aire, si al caso viene, y vivo esto con enorme satisfacción.]

²¹ [(Dale otra vez, viejo. Modestia y fidelidad: las dos plagas del verdadero aldeano vasco. Lo que es a ti, por muchos años que lleves fuera del terruño, no te será concedido dejar de serlo. Como dice Imanol: “Pasar al campo del sujeto moderno”. En fin que no tienes remedio.)]

²² Handia (2017) Jon Garaño Arzallusek eta Aitor Arregi Galdosek idatzi eta zuzendutako filma da.

JL: Bai, baina halan eta guztiz ere, euskaltasuna ahaztu barik. Gauza berrietara zabaldu bai, baina... Nik ezagutzen ditudan euskaldun gehienek gehiegi egin dute hori, baina, hala ere, ez dute baztertzen euren euskalduntasuna. Hor bada beste oreka bat: ez halan asmatu edo erabaki daitekeelako, halantxe bizi garelako baino. Ezin gara-eta beste modu batera bizi.

1.4. Engaiamendua

JM eta AZ: 1960ko hamarkadako euskal eztanda handia bertatik bertara ezagutu zenuen, 1967-68 urteetakoa batik bat, ikastolak, euskara batuaren sorrera, ETA... Hein handi batean jarduera armatuak markaturiko erresistentzia-aro hori ezagutu zenuen, baita ondorengo bilakaera ere. Azken urteotan beste aro bat zabaldu da. Zelan ikusten gaituzu beste aro honetan?

JL: Anekdotak txikitxo bat kontatuko dizuet, Sarri [Joseba Sarrionandia] zelan ezagutu nuen. Kontua da *Zarandona* Mexikoko Euskal Etxeak argitaratu zuela lehenengoz. Ez dakit zelan, baina ale bat Kubara iritsi zen —ez nik bidalita: norbait joango zen hara, “begira zer azaldu den hemen...”—. Kuban bazen euskal errefuxiatu bat, nik ez nuen ezagutzen, eta esan zion Mexikon bizi zen mediku bati —bera ez zen euskalduna— nire bila hasteko, nirekin berba egin nahi zutela-eta. Hori zen Txalaparta argitaletxearekin harremanak zituen bat. Bide horretan, Sarri ere *Zarandona* ezagutu zuen, eta “hau argitaratu egin behar duzue” esan ei zien. Euren artean aritu ziren eta azkenean Txalapartak argitaratu zuen liburua, zuek irakurri duzuen edizioa.²³

Nik irakurria nuen Sarriren lanen bat, eta idatzi ere idatzia nuen berari eta Atxagari buruz hango aldizkari batzuetan. Liburua argitaratuta, halan hasi ginen elkar urrundik ezagutzen. Gero, nik uste Kuban normalizatu egin zela bere egoera, eta Habanako unibertsitatean zebilen irakasle euskal ikerketen sailean, eta Lope Agirrerri²⁴ buruzko mintegi bat ematera gonbidatu ninduen. Orduan ezagutu nuen aurrez aurre, 2018an izan zela uste dut.

Zuen galderara itzulita, Francoren aurkako aroa izan zen lehenbizi, eta ni hor hezi nintzen Euskal Herrian, 1960ko hamarkadan, 1960tik 1970era, hamar urte, itsasontziz etorrita gainera, kar-kar-kar: La Guairatik irten, Bartzelonara iritsi eta hantxe eduki genuen lehen topaketa frankismoarekin: “Mutiko hauek ezin dituzte izen horiek izan: *Josu* ez da existitzen izendegian, eta *Koldobika* ere ez. Alda iezazkiezue izenak”,²⁵ gure amari, Bartzelonako adua-

²³ *Zarandona* 1999an argitaratu zuen Mexikoko Euskal Etxeak; 2000an, Txalapartak.

²⁴ Lope Agirre (1510-1561) Hego Amerikako esploratzaile eta konkistatzaile euskalduna izan zen, Gaztelako Koroaren aurka altxatu zena.

²⁵ [Estos niños no pueden llevar esos nombres: *Josu* no existe en el santoral y *Koldobika* tampoco. Cámbienles los nombres.]

nan, grisek —frankismo garaiko polizia-kidego espainiarra—, izen haiekin ezingo ginela sartu. Gure amak erakutsi zizkien gure jaiotza-agiriak, izen horiek genituela baieztatzeko, eta alferrik: “Andrea, ez dizut errepikatuko: izen horiek aldatzen ez badituzu, muga [Frantziako muga] hemendik ordu erdira dago, nahi izanez gero joan zaitezke. Hemen sartzekoak bazarete, [mutikoen] izenak aldatuko dituzue”.²⁶ Hori izan zen gure lehen lezioa, zer eta zazpi urterekin, kar-kar-kar. Amak trankil egoteko esan zigun, egingo genuela zerbait, baina aldatu egin behar izan zituen izenak: ni harrezkero Jesus nintzen eta nire anaia, Luis, halan ageri gara Batxilergoko gure paperetan, lagunekin Josu eta Koldo ginen arren.

Gero, Venezuelara itzultzean, arazoak han ere, han Jesus eta Luis modura ez ginelako agertzen, eta baliokidetzak eta gauzak egin behar izan genituen, kar-kar-kar. Hori da gure bizimodua, txo! Garai hartan Joan Manuel Serrat hasia zen kantuan, Paco Ibáñez, Joan Baez eta Pete Seeger eta beste iparramerikar horiek, eta hemen Ez Dok Amairu orduan sortu zen Hori zen gure giroa. Nik hamabost-hamasei urte nituen orduan, eta, ume batzuk izan arren, hortxe genbiltzan, abertzale eta ezkertiar modura borrokan, baina hutsune handia geneukan: hamar urtez gure gurasoekin ez egotea gauza gogorregia da alde gizatiarretik. Behin Batxilergoa amaituta Venezuelara itzuli ginenean, aita eta amak nasai-nasai esan ziguten berriz joan behar genuela Euskal Herrira, unibertsitate-ikasketak egitera. Guk erantzun genien ez ginela joango, hantxe geratuko ginela. Haiek, berriz: “Zelan? Horrenbeste ahalegin egin dugu zuek han egoteko eta han ikasteko eta orain...”, “Bai”, erantzun genien, “eta orain hemen geratuko gara”. Anaiak eta biok iraultza totala egin genuen eta ez ginen joan. Egin kontu Burgosko prozesua²⁷ eta horiek guztiak nik jada ez nituela Euskal Herrian bizi izan. Gero, Francoren heriotza eta ondorengo aldaketak eta gauzak, horiek urrundik bizi izan nituen, beste bizi-modu batetik, beste egoera batetik.

JM eta AZ: *Haustura edo erreforma hautuen inguruan ardaztu zen zikloa etorri zen gero, instituzionalizazio prozesua, batetik, eta horren kontra oldartu zen blokea, bestetik; orain, aldiz, bipolarizazio-garai hori gaindituta, beste etapa batean sartuak garela dirudi. Zelan bizi izan duzu zuk eboluzio hau?*

JL: Gertatzen dena da bertan egonez gero bertako gauzetan sartzen zarelara. Orduan ez zegoen gaur beste erraztasun momentuan zer gertatzen ari zen jakiteko. Gaur egun hamar minutuan Groenlandian zer gertatzen ari den ere badakizu. Orduan ez zen horrela, hemen gertatzen ziren gauzak iristen ziren hara beranduago, denbora-tarte bat bitarteko, eta horrek beste ikus-

²⁶ [Señora, no se lo voy a repetir: si no cambia usted esos nombres, la frontera (Frantziako muga) está de aquí a media hora, se pueden ir si les da la gana. Si entran aquí, van a cambiar los nombres.]

²⁷ Burgosko prozesua 1970eko abenduaren hasieran auzitegi militar batek ETako hamasei kideri egindako epaiketa izan zen.

kera bat ematen dizu. Orduan gauzak urrunetik ikusten genituen: gu hara joan ginenean, bertan geratzeko joan ginen, guretzat gogorra izan zelako gure gurasoak hamar urtean han egotea eta gu Euskal Herrian; gogorregia izan zen. Ez diot hau nire gurasoen kontra: eurek pentsatzen zuten egin zuten ahalegina zuzena zela, ondo zegoela; nik ez diet inoiz hori aurpegiratu, baina barruan kolpe gogor hori dago. Euskaldunok asko egiten dugu: bizi garen tokian, bertan sartzen gara. Hori nik uste ona dela; hori bai, jatorria ahaztu gabe.

Venezuelara bueltatu ginen, beraz, baita unibertsitate-ikasketetan eta hango mugimendu politikoetan murgildu ere. Hori atsekabe iturri izan zen Venezuelako jeltokide batzuentzat: “Gure gazteak ezkertiar maoistak dira”, esaten zuten. Pérez Jiménez, venezuelar diktadore ohia, Madrilen bizi zen, demokrazia abian zen ordurako, baina zelako demokrazia Ezin dugu ahaztu Gerra Hotza indarrean zela eta Venezuelak Gerra Hotz horretan paperik garrantzitsuenetarikoa izan zuela, lehen lubakia jarri zen bertan. Beraz, demokrazia bai, jarri zen, AEBren aldeko demokrazia. Gero, behin Pérez Jiménez erori eta gero, Fidel Castoren jarraitzaileek irabazi zuten Kuban, Batista erori zen, eta hor atmosfera berezia sortu zen.²⁸ Hor hainbat hamarkada iraun zuen gerra isil eta gogorra izan zen tartean: Venezuelen pertsonak desagertzen hasi ziren; gaur egun eguneroko kontua den hori Venezuelen hasi zen.

Garai hartan 11.000 pertsona inguru desagertu zirela uste dut. Txilen eta Argentinan baino lehen, beraz. Azken horietan Venezuelen ikasitakoak baliatu zituzten gero; laborategia izan zen Venezuela. Demokrazia hori Acción Democráticaren eskuetan jarri zen, Rómulo Betancourt buruzagi zela.²⁹ Nahi duzue jakin zelako morroia zen bera? [Betancourten hitzaldi baten grabazioa jarri du, diktadorea komunisten eta ezker iraultzaileko mugimendukoekin kontra garrasika ageri dela, gaineratuz protestak aritzeagatik preso dauden ikasleek preso jarraituko dutela, baita haien irakasleek eta sindikalistek ere]. Hori zen demokrata, e? Venezuelako demokraziaren aita. Nork jakin ditu hemen gauza horiek? Inork ez, eta gero guztiak Venezuelari buruz hitz egiten, *venezuelologo* asko dago hemen, baina ez dakite zer gertatu zen hor. Guk hori geneukan han.

JM eta AZ: *Eta horren kontrako militantzia aktiboan murgildu zinen.*

JL: Bai, ni eta nire moduan gazte gehienak ere horretan zebiltzan. Horretan sartuta, Euskal Herriko gauzak urrun ikusten dira. Gaurko erraztasunak izan bagenitu, beste gauza bat zatekeen.

²⁸ Fidel Castro Ruz (1926-2016) Kubako agintari sozialista izan zen 1959-2008 artean, Fulgencio Batista Zaldibar (1901-1973) agintariaren diktadurari (1952-1959) amaiera eman ondoren.

²⁹ Rómulo Betancourt Bello (1908-1981) 1945eko altxamendu militarra zuzendu zuen Acción Democrática alderdi politikoko kide izan zen, Venezuelako buru bi aldiz, 1945-1948 eta 1959-1964 artean.

1.5. Mexikora aldaketa

JM eta AZ: *Venezuelako askatasun-faltak eroan zintuen Mexikora?*

JL: Hor beste faktore batzuk izan ziren. Bat, beharrezana, gehiago ikas-teko, filosofian sartzeko. Hain zen gogorra gure hamarkada hori, ni bere ga-raian ez nintzen filosofia ikastera joan, horretarako Caracaserara joan behar nintzelako —Caracasetik kanpo, ez zegoen filosofia ikasketarik inon, eta El Tigretik Caracaserara joateko 8-9 ordu behar ziren autobusez—. Orduan, zer egin genuen? Filosofiatik hurbilen zegoen arloa hautatu, soziologia. Soziolo-gian sartu nintzen Universidad de Orienten, Ekialdeko Unibertsitatean, nire bokazioa beti filosofia izan den arren. Behin soziologia amaituta, lanean hasi nintzen. Gero, filosofia ikasten hasi nintzen, orduan bai, Caracaserara joanda: astero joaten nintzen Cumanatik —El Tigre baino urrunago dagoen herri bat— Caracaserara, eskolak hartzera. Hor ezagutu nuen Angel Cappelletti ar-gentinarrak irakasle eta filosofo garrantzitsua.³⁰ Gero, kongresu bat izan zen Mexikon, joan egin nintzen eta asko gustatu zitzaidan hango giroa. “Ea be-karen bat lortzen dudan hona etortzeko”, esan nuen neure bostean, eta, ha-laxe, han geratzen-geratzen hasi nintzen. Egia da pertsonalki ere nahikoa arazo izan nuela, bizimodu gogorra izan genuelako; ez dut ukatuko une har-tan krisi nahikoa gogorra izan nuela. Mexikora joateak beste mundu bat za-baldu zidan. Nik uste dut erabaki ona izan zela.

JM eta AZ: *Filosofia-ikasketak amaituta zenituen ordurako?*

JL: Ez, ez nituen amaituta: Universidad Simón Bolívarren ibili nintzen, baina amaitu orduko joan nintzen Mexikora *Maestría* edo maisutza egitera. Bertan geratzen hasi nintzen, hango emakume batekin ezkondu nintzen gero, eta, behin lanean hasi ostean, hantxe geratu nintzen. 44 urte beteko ditut aurtan Mexikon. Izan ere, Mexiko ezagutu eta gustatu zitzaidan, ikas-taro sakonagoak egiteko aukera sortu zen, karrera bat. 1982tik nengoen han, Venezuelara bueltatu nintzen, gero berriz Mexikora... 1983-84 inguruan izango zen hori, eta 1984tik aurrera bertan geratu nintzen. Maisutza amaitu nuen eta gero doktoregoa ere bai.

JM eta AZ: *Zelako testuingurua topatu zenuen Mexikon?*

JL: Ni bertan geratzeko asmoz iritsi nintzenean, 1982ko azaroaren 30ean, abenduaren 1ean Mexikoko lehendakari berriak bere agintaldia hasi zuen: López Portillo joan zen eta Miguel de la Madridek hartu zuen agintea. Biak ere PRI alderdikoak ziren.³¹ Orduan, ni iritsi nintzenean, uste dut alka-

³⁰ Ángel José Cappelletti (1927-1995) argentinarrak filosofo eta historiagilea izan zen.

³¹ José López Portillo (1920-2004) Mexikoko buruzagi izan zen 1976-1982 artean. Miguel de la Madrid Hurtado (1934-2012), 1982-1988 artean. Partido Revolucionario Institucional alderdi sozialdemokratako kide ziren.

tetza bakarra zegoela Mexiko guztian —4.500 alkate zeuden estatu batean— PRIkoa ez zena, bat baino ez, kar-kar-kar. Guztiak ziren han demokratak, badakizue... Iritsi nintzen Mexikora gau batean eta hurrengo goizean Miguel de la Madrid bere kargu-hartze diskurtsoarekin: “Hemen moral berria ezarriko dugu”, eta horrelako gauzak esaten; neoliberalismoaren errezeta guztiak zeuden bere diskurtsoan.

Mexikoko pelikula neoliberal osoa ikusi dut, lehenengo minututik. Miguel de la Madrid estu ibili zen, 1985ean lurrikara politiko itzela izan zelako: hor azaldu zen Cuauhtémoc Cárdenas,³² PRI barrutik irtenda. Euren mugimendua hauteskundeetan sartu ahal izateko, erdi ahaztuta zegoen alderdi zahar txiki baten izena hartu behar izan zuten: PARM, Partido Auténtico de la Revolución Mexicana, Mexikar Iraultzaren Benetako Alderdia. Mexikarrek hori daukate, horrelako izen luzeak jartzen dituzte. Haien fronteak ere gero izen luzea hartu zuen. *F*-rekin hasten zen, “Frente” zelako, frontea, eta hain zen izen luzea, jendeak *El Ferrocarril* deitzen zion, kar-kar-kar. Hori zen indar txikitxoan eta apur bat handiagoan arteko aliantza bat: komunistak, ezker-tiarrak, demokratak Estu ibili ziren orduan PRIkoak. Gehienek esaten dute Cuauhtémoc Cárdenasek Mexiko BFn irabazi egin zuela. Hori ezin sinesteko gauza zen orduan. Hori ikusi zutenean, PRIkoek ez zituzten emaitzak eza-gutarazi. Zergatik? Sistema bertan behera jausi zelako. Hori izan zen orduko esaera: “sistema erori da”.³³ Hori esaten dizu bankuko leihatilan dagoen gizon batek, baina beste modu batera ere interpreta daiteke, hau da, PRIren sistema erori zela. Ez zuten kontuan izan esaera horrek zelako eragina izan zuen. Konputagailuak ez dabiltzanean ere berdin, sistema jausi da.

Orduan azaldu zen Partido de la Revolución Democrática (PRD), Iraultza Demokratikoaren Alderdia.³⁴ Kontu horiek urrun samarretik ikusi nituen, politikaz nekatuta eta aspertuta bainengoen, krisi ideologiko gogorra pasatuta. Lehen sinesten genituen gauza guztiak berrikusten hasi nintzen, guzti-guztiak. Horrek ekartzen du, filosofiari dagokionez, beste askatasun bat: neure pentsamenduak, neure gauzak. Batzuek esango dute hori harrokeria dela. Tira, filosofook beti susmo horren pean gabiltza, “harro hutsak dira”... Nahi dutena, baina filosofoak ez badu bere buruari buruz pentsatzen, zertarako du burua? Zertarako da filosofo? Ni neu, gainera, deseroso samarra naiz, kritikoen kritiko. Badakizue, batzuek euren buruarentzako baino ez dute onartzen etiketa hori: “gu kritikoak gara”. Orduan, norbera kritikoaren kritiko bihurtzen da, eta hori ezin da barkatu... Hori da nire egoera orain, eta hori da nire filosofiaren ideia eta pentsamendua. Ona edo txarra, ez dakit; besteez esan beharko dute.

³² Cuauhtémoc Cárdenas Solorzano (1934) ezkerreko politikaria da, 1988an Mexikoko buruzagitzarako hautagai, Partido Auténtico de la Revolución Mexicana alderdiaren bidez.

³³ [se cayó el sistema]

³⁴ Partido de la Revolución Democrática 1989-2024 artean Mexikon jardunean egon zen alderdi sozialdemokrata izan zen.

JM eta AZ: Mexikon topatu zenuen euskaldunik, euskal komunitaterik? *Gara* hartan sortutako La Jornada egunkarian zebilen, adibidez, Josetxo Zaldúa...³⁵

JL: Bai, *La Jornada* euskal kazetari ezagun bat zebilen. Nik ez nuen ia eza-gutu, behin ikusi nuen bakarrik, Euskal Etxean gainera, baina ez zeukan apar-teko harremanik euskal munduarekin. Hiriburuko Euskal Etxea oso zatituta eta polarizatuta zegoen ni hara iritsi nintzenean. Lehen aipatu dudan ideiarekin joan nintzen ni, esanez euskaldunok euskal kulturaren aldeko ahaleginak egin behar ditugula, eta ez Euskal Etxean musean edo tutean jokatzen edo txistorra jaten eta edanean egon. Hau da, taberna edo kluba baino zeozer gehiago izan beharko litzatekeela, kultur mailan ere jardunez. Ideia horrekin joan nintzen, baina hain zegoen polarizatuta hura... Jelkideek pentsatu zuketena “hau ezker-tiarren bat izango da”... Hori neure pentsamendua da, zehazki horrela ote den ez dakit-eta. Galdetu zuketena “Caracasetik honelako izena duen gizona heldu da”, eta hango euskaldunek esan zieketen, “hori ezkertiar maoista da”, eta, ho-rrenbestez, jelkideekin, susmopean. Besteak, berriz, euren abertzaletasunean, euren berotasunean, eta nik horrelako berotasunik ez neukan. Eta hala eta guz-tiz ere, egiten genuen gauza mordoa; denbora piloa egoten nintzen han astebu-ruetan, horretarako ia astirik ez neukan arren. Euskal Herriaren alde egin behar zen, baina gero gehiegizkoa izan zen kontu bat gertatu zen.

2004a zen, kasualitatez, ni Alemanian sei hilabetez egona nintzen, eta he-men Euskal Herrian beste hiru hilabetez, *Muerte sin fin* itzultzen. Joxe Azur-mendik³⁶ lagundu zidan horretan, eta beste hainbatek ere bai. Hiru hilabete eman nituen hiztegiak ikusten, itzulpenean buru-belarri... Ez da lan erraza, poema zaila baita *Muerte sin fin*. Txema Larrea³⁷ lagunak ere asko lagundu zi-dan, Octavio Paz-en *Eguzki harria* euskaratu nuenean bezala. Poesia mailan behintzat nire ahalegina egin nuen, baita euskarari dagokionez ere. Behin lan hori amaituta, kasualitatez orduan betetzen ziren Mexikoko hiriburuko Eus-kal Etxearen lehen 100 urteak, 2004 edo 2005ean, eta Euskal Etxeko lehen-dakariak esan zidan, “aizu, zerbait egin behar da, zuzendaritzara etor zaite-zen nahi dut, mendeurrenaren ospakizun-batzordera”. Baietz erantzun nion. Haien ikuskera, ordea, erabat folklorikoa zen. Nik esaten nien mendeurrena baliatu behar zela komunitatea suspertzeko, Mexikoko aginte-guneetan era-giteko eta geure burua ikusarazteko. Aipatu nien banuela horretan lagun ze-zakeen gauza bat, eta ez nik egina zelako: Jose Gorostiza Mexikoko xx. men-deko poeta garrantzitsuena izan zen nire ustez, hori beti esaten dut, baina ez hori bakarrik, horrez gain diplomatiko handia izan zen, oso garrantzitsua, Mexikoko Estatuak asko preziatzen duena. “Itzulita daukagunez gero”, esan

³⁵ Josetxo Zaldúa Lasa (1951-2021) kazetari nafar eta mexikarra izan zen. 1980az gero Me-xiko Hiriko *La Jornada* egunkarian lan egin zuen.

³⁶ Joxe Azurmendi Otaegi (1941-2025) pentsalari eta idazlea izan zen, 1956ko belaunaldiko figura nabarmena.

³⁷ Jose Mari Larrea Muxika (1954-2018) idazle, kazetari eta militante politikoa izan zen.

nien, “editatuko dugu, eta, behin horretara, oparituko diegu gero ale bana Mexikoko aginte politiko, diplomatiko eta kulturaletako eragileei? Modu horretara, Euskal Etxeak jauzia egingo luke, musa eta txistorra eskaintzeaz harago joanda”. Jaurilaritzako funtzionario batek, ordea, esan zuen berak poesia modernoa ez zuela ulertzen, eta ez zekiela itzulpen hori atera ote zitekeen.

Zenbat izango ote zen eskatzen genuena? 20.000 euro, asko jota? Gauza polita zen, ez garestia gainera, lan dezentea egin eta mendeurrena ondo ospatzeko modukoa, eta... Nire bostean esan nuen: “Nire argudioak entzun ere ez ditu egin, eta hauek dira bereak? Morroi honek poesia modernoa ulertzen ez duela eta, horregatik botako dugu dena atzera?”. Jaurilaritzako ordezkari batek hori esatea... Lotsagarria da hori, txo! Horregatik itzulpen hori azkenean Bonobos argitaletxearekin atera zen, Mexikon bertan. Hori bai, Labayru Fundazioak ere argitaratu zuen gero, edizio polit-polit batean. Kontua da harrezkero hoztu egin zela nire harremana hango Euskal Etxearekin. Behin edo birritan joan naiz ordudanik, baina ez naiz bertaratzen normalean.

1.6. Venezuela

JM eta AZ: *Mexikoko historiaz eta gaur egungo egoeraz hitz egin diguzu, baina Euskal Herriaz ere. Zer dioskuzu Venezuelaz?*

JL: European Venezuelari buruz jardutea ez da hain erraza. Venezuela herrialde oso berezi eta konplexua da. Asteotan bideo txiki bat ikusi dut, aleman batek zahartzaroan izan zuen proiektu bati buruzkoa: yate batean Antilletako irletan-eta ibili zen, paisaia ederrak daude hor, eta Venezuelara iritsi eta esan zuen: “Hemen dena dago: basamortuak, mendiak, lautadak, ibaiak, ura, kostaldea...”. Bidaia bat egin zuen lehenik, beste bat gero, eta aldi bakoitzean denbora gehiagoz geratzen hasi zen, eta emaztearekin erabaki zuen Antilletako irletan geratu beharrean Venezuelan geratuko zirela, hantxe amaituko zituztela euren azken urteak. Hauen kasuak erakusten du zer egin litekeen Venezuelen: erosi zituzten lur elkor batzuk eta hasi ziren arbolak landatzen, eta handik bost urtera han duzu basoa, kar-kar-kar, eta etortzen dira animaliak; animalia itzelak gainera. Ameriketan dagoen biodibertsitatea izugarria da. Ez dakit zenbat txori mota dauden Euskal Herrian: zenbat? Ehun? Han hamar aldiz gehiago: edozelako txoriak, edozelako gauzak...

Herrialde itzela da, ikaragarria, ikusgarria, historia konplexuduna. Indarkeria itzela pairatu izan du. Independentzia lortzeko, Venezuelak biztanleriaren bi heren galdu zituen. Independentzia lortu eta gero, Bolivar eta bere lagunak ez ziren konforme geratu eta beste herrialdeak askatzen hasi ziren.³⁸

³⁸ Simon Bolivar y Palacios Ponte y Blanco (1783-1830) Hego Amerikako lurraldeak Espainiako Inperiotik askatzeko eragile eta militar nagusia izan zen.

Peruraino iritsi ziren horrela. Egin kontu orain Bolivia dena lehen Peru zela. la Argentina da hori, eta oinez edo, asko jota, mandoetan ibilita haraino. Bolivarren ibilerak Alexandro Handiarenak baino hamar bider handiagoak dira, zelako baldintzetan gainera, ez sinestekoa da.

Kreoleak espainolen semeak ziren, baztertuta zeudenak, eta horiek altxa ziren; *mantuano* modura zen ezagun klase horretako jendea, hango oligarkia aristokratiko modura ezaugarritzen baitzituen erabili ohi zuten mantuak. Klase horretakoen artean Bolivar izango zen aberatsena. Horrelako aberastasuna izan arren, guzti-guztia utzi zuen Kolonbiara, Ekuadorrera eta Perura joateko, Perun bertan Bolivia fundatu gero... Indarkeria eta gerra tarteko zirela betiere. Pertsona argia zen Bolivar, baina proiektu politiko nahiko problematikoak zeuzkan, nahiz eta zuzenak izan. Gaur egun esango genuke elitista zela, ez zeukalako konfiantza handirik herrian. Askok diote diktadorea zela, eta, egia esan, egiazko diktadorea izan zen, baina garai hartako diktadorea, gaur egun diktadorearen beste kontzeptu bat daukagulako. Orduan, diktadorea larrialdian boterea hartzen zuen pertsona zen, momentuko arazo horiek bideratzeko, eta behin une hori igarota, listo, ez zeukan botererik, ez zen inor.

Esan nahi dudana zera da: une hartan biolentzia itzela azaleratu zela. Venezuelan 20 urtean biztanleriaren bi heren hiltzeko, pentsa zelako gauzak gertatu ziren hor. Adibidez, espainolak independentisten aurka hasi zirenean, haiek hiltzen eta euren aberastasunak apurtzen, Bolivarrek *hil arteko gerra-dekretua*³⁹ atera zuen, hau esanez, besteak beste: “Espainiar eta kanariarrak, argi izan hilko zaituztetela, errudun ez bazarete ere; amerikarrak, argi izan biziko zaretela, errudun bazarete ere”.⁴⁰ Hordagoa da hori. Zazpi urte eman zituzten gerretan murgilduta. Espainolak galtzen hasi zirenean, bilera bat izan zen Bolivar eta Morillo militar espainiarraren artean —Napoleonen aurkako Independentziaren gerraren ostean bidali zuten Morillo hara, 15.000 soldadu eta makina bat itsasontzirekin—. Gerra humanizatzeko ituna egin zuten: hil arteko gerra-dekretua bertan behera utzi zuten venezuelarrak, eta espainolek ere indarkeria apaltzea hitzartu zuten. Eta, hala ere, independentzia ondoren ere beste hainbat gerra izan ziren: kontserbadoreak liberalen aurka, Bolivarren beraren aurka altxatu zirenak —harekin buru bat eginda ibilitako Páez,⁴¹ adibidez—...

Bolivar bakar-bakarrrik hil zen Santa Martan (Kolonbian). Indarkeriak presentzia handiegia izan zuen ziklo politikoa abiatu zen hor, hainbat es-tatu-kolpe tarteko. Azkenean liberalak gailendu ziren, baina, xx. mendera

³⁹ [*decreto de guerra a muerte*]

⁴⁰ [Españoles y canarios, contad con la muerte aun cuando no seáis culpables; americanos, contad con la vida aun cuando seáis culpables.]

⁴¹ José Antonio Páez Herrera (1790-1873) Venezuelako independentziaren aldeko militarra eta hango lehen lehendakaria izan zen.

iritsita, gauzarik ikaragarriena gertatu zen: petrolioa agertzea. Pentsa zelako aberastasuna daukan Venezuelak: New Yorkeko kaleetako galipota Venezuelatik ateratakoa da, erdi debalde, galipot hori, petrolio mota hori, azal-azalean zegoelako. Guanocotik hartu zuten hori, Venezuelako Sucre estatuan, Paria penintsulan, Kolon iritsi zen inguruan. Hara iritsitakoan, “grazia-lurralladera heldu gara” esan ei zuen, hango baso-oihanak ikusita. xx. mendea hasi zenean hasi ziren jenero hori hara eroaten, AEBra, euren kaleetan galipota jartzeko, eta nik uste inoiz ez zutela ezer ordaindu horregatik, balio handiko gauzarik ez behintzat.

Petrolio gehiena pisutsua da, astuna, eta horrek beste prozesu batzuk eskatzen ditu. Petrolio zenbat eta zirinagoa, orduan eta gehiago balio du, eta Venezuelak petrolio asko dauka, munduko erreserbarik handienak ditu, eta Venezuelako historia garaikide guztia markatu du horrek. Venezuela men-debaldean lehen putzua egin zutenean, hilabeteak eman zituzten han atera zen jarioa eten ezinik; hondamendi ekologiko itzela zatekeen hura. Estatubatuar, ingeles eta herbeheretarrek hori ikusi zutenean, Venezuelen sartu ziren eta Juan Vicente Gómez⁴² 27 urteko diktadura gogor-gogorra bultzatu eta babestu zuten, petrolio-konpainiak laguntze aldera. Gómez ohean hil zen, Franco bezala, eta López Contreras haren Defentsa ministroa etorri zen ostean: atmosfera politikoa apur bat zabaldu zuen, presoak-eta kalera atera eta beste giro bat iritsi zen.

Horren ondoren, beste militar bat, Isaias Medina Angarita,⁴³ Caracasko kaleetan bizikletan ibiltzen zena, jendeak ezagutzen zuena eta jendearekin batzen zena Alderdi Komunista eta Acción Democrática alderdiak legeztatu ziren bere garaian, preso politikorik ere ez zegoen, baina izorratu zuten Isaias Medina —besteak beste, petrolio-konpainiei petrolioa merkeegi saltzen zietela esaten hasi zelako—, bere aurkako estatu-kolpe batekin —aurretik Gómezek ere Cipriano Castroren⁴⁴ aurkako estatu-kolpeztan lortu zuen boterea—, eta hauteskundeak deitu zituzten. Hauteskunde horietan Rómulo Gallegos⁴⁵ gailendu zen, idazle garrantzitsua bera, Nobel sarirako hautagai ere izanikoa, baina zortzi hilabete pasatxo geroago beste estatu-kolpe bat izan zen, eta Pérez Jiménez jarri zen diktadore. Hamar urte inguru egin zituen agintean, eta hori ere kendu zuten bidetik beste estatu-kolpe batez. Azken kolpe horrek demokraziari bide eman zion: Alderdi Komunista, Acción Democrática eta Unión Republicana Democrática alderdiak legeztatu ziren eta Pérez Jiménez Madrilera joan zen bizitzera. Hantxe hil zen.

⁴² Juan Vicente Gómez Chacón (1857-1935) Venezuelako diktadore izan zen 1908-1935 artean.

⁴³ Isaias Medina Angarita (1897-1953) Venezuelako Errepublikako buru izan zen 1941-1945 artean.

⁴⁴ José Cipriano Castro Ruiz (1858-1924) Venezuelako diktadore izan zen 1899-1908 artean.

⁴⁵ Rómulo Gallegos Freire (1884-1969) Venezuelako buru izan zen 1948ko otsaila-azaroa artean.

1958an izan zen hori, eta 1959an Fidel Castrok irabazi zuen Kuban. Orduan hasi zen salda hori loditzen. 1960an aro berriko lehen hauteskundeak egin ziren Venezuelen eta lehen aipatu dugun Rómulo Betancourtek irabazi zituen. Egin kontu Venezuela Gerra Hotzean lubaki bat gehiago izan zela, bere kokapen geografiko estrategikoa eta aberastasunak tarteko. Baina behin Kubakoa gertatuta, ezin zen horrelako besterik baimendu. Gerra Hotza berotu egin zen orduan. Betancourten Acción Democrática zatitu egin zen, gazteria eta sindikalista gehienak Movimiento de Izquierda Revolucionariaren (MIR) inguruan bildu ziren. Horrez gain, komunistek ere indar polita zuten, oker ez banabil Caracasen irabazi zuten hauteskunde horietan. Komunistak benetako arriskua ziren, beraz, eta Acción Democrática bera ere ezkerretik zatitu zen eta horiek guztiak Kubakoaren antzeko proiektua bultzatzen saiatu ziren, eta hortxe hasi zen hondatzen nire ustez Venezuelako ezkerria: 28 fronteko gerrilla gogorra antolatu zuten MIREkoek eta Alderdi Komunistakoek, baina 1960ko hamarraldia amaitu baino lehen izorratu zituzten; erabateko porrot militarra.

Estatubatuarrak ezin zuten onartu horrelakorik: Kuban zer gertatu zen ikasita sartu ziren eta hilketak hasi ziren, milaka pertsona desagertuta, helikopteroetatik botata... Alberto Lovera Alderdi Komunistako Batzorde Zentraleko kidea,⁴⁶ adibidez, Caracaseko bihotzean preso hartu eta desagerrarazi zuten: zaku batean sartu zuten, pikotxa eta kate lodi bat ere zaku barruan zirela, pisu gehiago har zezan, eta itsasora bota zuten. Akats handia egin zuten, ordea: gorpuak erreakzio kimikoak izan zituen, gasak askatuz, eta ur-azalera agertu eta arrantzale batek bere sarean harrapatu zuen.

Horrelako kasuak, makina bat. Demokratek egin zuten hori guztia. Euren argudioa izango da besteek ere estatu-kolpeak egin zituztela, eta egia da: baziren militar ezkertiarak, gerrilla ere bazen, eta eskumatarrek eurek ere Betancourten kontrako atentatua egin zuten. Nik ez dakit egia edo mitoa den, baina esaten dute —pintoreskoa zen benetan Betancourt hizketan— bere diskurtso batean honako hau bota zuela: “Eskuak erre dakizkidala baldin eta altxor publikoan sartzen baditut”; kontua da talde eskumatar batek bonba jarri ziola autoan, eta Betancourten belarri batean entzumen a galdu zuela... eta eskuak erre, kar-kar-kar.

Horixe da Venezuelako politika: indarkeria itzela eta narraskeria. AEBko politika sustatzen ari ziren herrialdean, ez zeukaten beste proiekturik. Gauzak egin zituztela? Bai, Venezuelen geratzen ziren petrolio-hondakinekin egin ziren gauza on batzuk ere, baina hainbat lagunek pobrezian jarraitzen zuen, dena den. Ezkerrek galdu zuen gerra hori, eta ostean Baketzea, *Pacificación* delakoa, etorri zen: komunistek eta MIREkoek itunak egin zituzten Gobernuarekin eta legalki jarduteko baimena lortu zuten, baina zatiketak izan

⁴⁶ Alberto Lovera (1923-1965) irakasle eta politikari Venezuelarra izan zen.

ziren orduan ere. Horixe da, izan ere, ezkerren historia: zatitu, zatitu eta zatitu. Ondorioz, 1970eko hamarkadan, ni unibertsitatean nengoela, gerri-llak zeuden oraindik. Venezuelako politikan beti dago presente indarkeria, izan militarki, izan estatu-kolpeen bidez, baina baita diskurtsoan ere. Lehen Betancourt aipatu dugu, baina Chávezek-eta, halaber, horrelako diskurtsoak zituzten. Venezuelako historia politikoan sartuta dagoen kontua da hori, eta Chávez berarena izan zen hurrengo estatu-kolpea, 1992an.⁴⁷

Hori baino lehenago, gertaera oso garrantzitsu bat jazo zen, *El Caracazo* modura ezagutu izan dena: jendea politika neoliberalen aurka matxinatu zen eta hor ere hilketak izan ziren, milaka, eta indarkeria; indarkeria beti. Ni Mexikon nengoen ordurako, baina nire anaia han izan zen, eta bertatik bertara bizi izan zituen supermerkatu eta denden arpilaketak, bortxa, eta beti diskurtso gogor, zatarra, txo. Zer gertatu zen hor? Militar gazte batzuek, militarren estamentua barrutik ikusi zutenean, eta hark herritarrekin zelako harremana zeukan, erabaki zuten beste mugimendu bat eratzea horren aurka egiteko, eta hor antolatu zen Chávezen estatu-kolpea. Huts egin zuten, baina akats handia egin zuen Gobernuak ere: Chávezi mikrofonoa eman zioten bere aginduen zain zeudenengana zuzen zedin. Hartu zuen mikrofonoa eta esan zien armak utz zitzatela, bere gain hartzen zuela gertaturiko guztia eta ez zeukala zentzurik jarraitzeak, eta erantsi zuen: “Porrot egin dugu... oraingoz”.

Gertaturikoaren ardura bere gain hartzearena berria zen Venezuelako politikan, inori ez zitzaion ordura arte halakorik entzun. Beste kontua, *oraingoz* hori. Bizpahiru minutu horiek zeruraino igo zuten Chávez. Hortik preso sartu zuten, urte bi egon zen kartzelan, baina bera espetxean egotea ere problema zen, presio handia Gobernuarentzat, eta atera egin zuten azkenean, baita heroi modura irten ere, eta Venezuela guztia zeharkatzen hasi zen, herririk herri. Hurrengo hauteskundeetan berak irabazi zuen, pronostiko guztien kontra. 1999an hartu zuen agintea eta handik urte bi eta erdira bere aurkako lehen estatu-kolpe saiakera izan zen. Lehenengoa, gero beste batzuk ere izan ziren-eta. Oraingo estatu-kolpeek, gainera, beste itxura bat dute, ez dira lehengoak bezalakoak —militarrak, hegazkinak, bonbak—. Orain iraultza koloretsu batekin eror daiteke gobernu bat —udaberri arabiarraz gogoratu—, hildako bakan batzuekin —Georgian edo Ukrainan modura—.

Hemen, European, asko egin dira horrelakoak, baina Venezuelan ezin izan zuten hori egin, saiatu arren. Hori bai: politika indarkeria da Venezuelen, ohitura hori sustraituta dago. Chávez entzun izan bazenute... Arrazoiak arrazoi, estatu-gizon batek ezin du esan, diskurtso batean, milaka lagun aurrean, txapel gorria jantzita eta gorputz guztiarekin esaldia indartzen:

⁴⁷ Hugo Rafael Chávez Frías (1954-2013) Venezuelako buru izan zen 1999-2013 artean. 1992an estatu-kolpea egiten saiatu zen, Movimiento Bolivariano Revolucionario – 200en bidez.

“Zoazte pikutara, yanki kakatsuok, mila bider pikutara!”⁴⁸ kar-kar-kar. Nik uste haserre egoteko arrazoiak zituela, iparramerikarrak beti ari direlako bes-teen kontuetan sartzen, beti, eta chavismoa ez zutelako egun bakar batean bakean utzi, lasai, eta Maduro⁴⁹ gutxiago gainera.

Chávezek erraztasun gehiago izan zituen hasieran, baina, hala eta guztiz ere, nik ezin dut justifikatu horrelako esaldirik. Politika-istilua dago hor, hemendik ulertzen ez dena; oso zaila da Venezuela Europatik ulertzea. Hedabi-deek gero ez zituzten ikusten Chávezen politikak, hartutako neurri egokiak, esandako kontu horiekin geratzen ziren, berak ere erraz jartzen zielako. Gero zer gertatzen da? Zigorak, zigor itzelak. Egia esan behar da: gobernu bolivar-tarrak akats itzelak egin zituen. Euren konpromisoa zen pobreen alde ahale-ginik handiena egitea, eta hori ondo dago, baina gero egiten dena zer da?

Adibide bat jarriko dizuet: etxebizitzak, pisu ederrak gainera, oparitu egi-ten zituzten, milaka. Pentsa zelako politika izan zen hori: Elliott Abrams bi-dali zuten Trumpen lehen gobernuan, Venezuela izorratzeko.⁵⁰ *Irangate* au-ziko txerrikerietan ibilia zen aurretik, preso sartu zuten eta Trumpek atera egin zuen espetxetik eta Venezuelara bidali, han bere txerrikeriak egin zi-tzan. Abramsek behin, AEBko Kongresuan, ordezkariekin izaniko bilera ba-tean, esan zuen Venezuela Etxebizitza Misio Handiaren baitan bi milioi etxe eraikitze helburua lortzear zegoela, eta AEBk ezin zuela hori gertatzen utzi, hala eginez gero sozialismoa jendearentzat aukera egokia dela —hau da, eredu bideragarri eta positiboa— frogatuko zatekeelako, eta hori erdiz erdi zihoala AEBk ordezkatzin zituen balioen aurka eta ez zegoela, hortaz, hori baimentzerik. Horiek dira estatubatuarrak, txo!

Gero, behin Chávez hil eta gero, zigorak hasi zirenean, han egon zen AEBren enbaxadore modura William Brownfield⁵¹ deituriko bat, eta honela justifikatu zituen zigorak: “Venezuelako ekonomiak karranka egitea lortu behar dugu, kaos batean sar dadin; kaos horrekin, ezin izango du iraun eta jendeak presioa egingo die gobernuari eta militarrei, horren arabera joka de-zaten eta hau guztia behingoz amai dadin. Kaos egoera hilabete batzuetara muga daiteke edo urte batzuk izango dira agian, baina hori da bidea”.

JM eta AZ: *Txilen Allenderekin⁵² bezala, hortaz.*

⁴⁸ [¡Váyanse al carajo, yanquis de mierda, mil veces váyanse al carajo!]

⁴⁹ Nicolás Maduro Moros (1962) Venezuelako buru izan zen 2013-2026 artean, AEBk bahitu zuen arte.

⁵⁰ Elliott Abrams (1948) AEBko politikaria da, Donald Trump (1946) AEBko buruaren agin-teetan (2017-2021; 2025-egun) nazioarteko ardurak izan dituena eta dituena. *Irangate* 1985-1986 artean izandako ustelkeria da: AEBko buru Ronald Reaganen gobernuko (1981-1989) hainbat ki-dek Irani armak saldu zizkioten, gobernuak berak debekua zeukan arren.

⁵¹ William Brownfield (1952) AEBko enbaxadore izan zen Kolonbia, Venezuela eta Txilen.

⁵² Salvador Allende Gossens (1908-1973) Txileko politikari sozialista eta estatuko buru izan zen 1970-1973 artean.

JL: Horixe bera, eta bitartean jendea izorratzen: ezin jan, ezin ezer erosi, gasolinarik ez, ur eta argi barik Bizi egin behar da gero Venezuelan, e? 2019an sei hilabete eman nituen Caracasen eta bertan nintzela ikusi nuen Guaidó⁵³ —astapotro bat— bere burua presidente izendatzen eta AEBk Venezuelari kendutako dirua berari ematen —40.000 milioi inguru blokeatu dizkiote Venezuelari—. Egin kontu AEBn daukan Citgo findegia ere —eta haren gasolindegia guztiak— kendu ziotela Venezuelari, eta diru horrekin babesten dute Venezuelako oposizioa. Horiek dira gero zigor handiagoak eskatzen ari direnak, gaineratuz presionatzea dela bidea; “erregimen-aldaketarako politika” deitzen diote. Zer da hori, txo?

JM eta AZ: *EAJ oso lerratuta dago Venezuelako oposizioarekin.*

JL: Zergatik? Nik ez dut izenik aipatuko, baina badakit jeltzale batzuek interes handi samarrak zeuzkatela Venezuelako negozioetan. Gero, Chávezek astakeria eta akats ugari egin zituen: desjabetzeak, igandero izaten zuen *Aló Presidente* telesaio hura... 10-12 ordu har zitzakeen saioak, jendea jesarrita bera entzuten, eta telesaioko mahai hori hartzen zuen Gobernuaren kontu-emate gisa, eta erabakiak ere bertan hartzen zituen, ministroak aldame-nean zituela: “Aizu, Martínez, zertan da hitzartua genuen errepide-proiektu hura?”. Besteak azalpenak ematen zizkion, eta berak erantzun, momentuan: “Oso proiektu ona da, aurrera horrekin!”. Papera hantxe bertan sinatzen zuen eta aurrera. Eta hori telebistan zuzenean, eta herrialde guztia begira, kar-kar-kar. Beste behin, ehunka *okupak* eraikin handi bat hartu zuten, eta auzokideak estu eta larri zeuden, konponbide eske. Behin txostenak eroan zizkioten, eta Chávezek, telebistatik, guztien aurrean, “Desjabetu bedi!”, kar-kar-kar.

Horrelakoak hainbat egin zituen. Gasolina ere, berbarako, ura baino merkeagoa zen. Horrelako hainbat gehiegikeria egin zituzten. Beisbol partidu garrantzitsu bat ikusten egon kate nazional batean eta bat-batean Chávezen hitzaldia sartu; zelako ernegazioa jendeak. Eta hori egunero, edo gutxienez astean bi bider Gehiegizko ideologizazioa. “Desjabetu bedi!” esanda, langileak *Kapitala* irakurtzen zuten San Petersburgoko metalgintzako talde antolatatu haien parekoak zirelakoan, enpresa euren gain hartu eta aurrera aterako zutela pentsatzen zuen. Eta ez, han zeuden sindikalista ustel gehienak, asteburuetan beisboleak jokatu eta garagardoa edatean baino pentsatzen ez zutenak... Horien esku enpresa utzi? Erabateko porrota.

Hil zen Chávez, eta hil zenean oposiziokoek eta AEBk “hau da gure aukera” pentsatu zuten, uste izanik Chávezek karisma zuela baina besteak, Madurok, aldiz, ezer ez. Ez dakit dakizuen Maduro, izatez, autobus-gidaria zela. Pentsa hango oligarka, *mantuano* eta enparauentzat zer den hori, herrialdea

⁵³ Juan Guaidó Márquez (1983) Venezuelako buru lana egin nahian aritu zen 2019-2023 artean.

autobus-gidari baten eskuetan, bertako urre, uranio, plutonio, koltan, bauxita, burdin, ikatz, ur eta petrolio aberastasun guztiekin. AEBk hori guztia beretzat nahi du eta ezin du. Eta, noski, gero indarkeria leku guztietan dago: AEBk erabakitzen badu muga-zergak igotzea, handik ordu erdira aterako da Maduro salatzen AEBren esku-hartze politika inperialista bere diskurtso saskarrekin.

Hori ulertzeko han egon behar da, gauzak jakin behar dira, hori guztia ez da zerutik etorri. Chávez ez zen zeruko mana bailitzan jausi, ordura arte zegoen ustelkeria hartu behar da kontuan, eta gero eurekin ere ustelkeria azaleratu da; naturala da, hainbeste diru egonik. Badakizue zer dioen esaerak: ezti aberatseko abaraskara mila euli hurreratu ohi da. Ezkertiar modura etortzen dira, alkandora gorriekin eta gauzeekin, eta lapur batzuk dira, lapurretan egiten dute. Chávezen erizainak eta haren senarrak gutxienez mila milioi dolar lapurtu zituzten, Chávezen alboan egonda, txo! Gutxienez hori, e? Preso daude AEBn, ez dakit zelako baldintzatan. Egin kontu alkate batzuek ere milakadaka milioi dolar lapurtu zituztela. Horrek ez du esan nahi *chavistak* us-telak direnik. Denetarik izango da, baina askok baliatu zuen aukera, erraza zelako eta dirua barra-barra zegoelako.

JM eta AZ: *Azken hauteskundeetako aktak ez erakutsi izana leporatzen zaio Europatik Maduroren Gobernuari.*

JL: Hori ulertzeko gauza bat jakin behar da lehenengo: Venezuelako hauteskundeak ez dira *boletarekin* egiten, makinekin baino. Lekeition *herra-durari perra* esaten zaio: bada, horrelakoxe bat jartzen da, makina bat, gero hauteskunde-errola dago, gero beste makina bat norbere hatz-marka identifikatzeko. Bozkatu ere makina bidez bozkatzen da: atzamarra jarri eta norbere identitatearekin bat etorriz, orduan makina biztu egiten da eta, norbere zedula erakutsita, jarraitzeko baimena ematen dute, eta ikusi ahal izango du norberak makinan zeintzuk diren hautagaiak, eta pantailan hautatu nahi dena. Behin hori eginez gero, pantailak galdetzen du: “Ziur zaude?”. Baietz erantzunez gero, botoa badoa, eman da botoa. Gero, makina horrek ematen du papertxo bat. Paper hori ez da boto bat, boto bat eman dela egiaztatzen duen agiri fisikoa baizik, baina ez du erakusten noren alde bozkatu den, txarteltxo bat baino ez da. Sartzen da kaxa batean, eta hori egin eta gero joaten da erroldakoengana, sinatzen da hor, zedula ematen dute eta listo; minutu bat baino gutxiago behar da hori egiteko.

Hori egun batean egiten da, eta egun horretan egoten dira hamasei auditoria. Hamasei. Auditoria horietan oposiziokoak ere egoten dira, eta, gainera, hauteskunde egun guztian zehar ere alderdi guztiek lekukoak dituzte. Zer iruzur egin daiteke hor? Ezin da ezer egin. Puntu inportanteena, beraz: aktek ez daukate esaten dena besteko garrantzirik. Zergatik? Hor, mahaian dauden lekuko guztiek jasotzen dutelako akta bat. Zer da akta bat? Supermerkatuetan ateratzen dutenaren moduko horrelako txartel luze horietako bat, han

gertaturiko guztiak erregistratzen dituen. Hor dauden alderdietako ordezkari bakoitzari horrelako bat ematen zaio. Hori bai, bistakoa denez, ez dagoe-nari ez zaio ezer emango: ez badago, ez dago.

Maria Corina Machadok⁵⁴ ez zeukan inor gutxienez mahaien % 40an. Hori, bat. Baina hori ez da garrantzitsuena, garrantzitsuena da aktak ez direla inolako sekretua, eta hori baino garrantzitsuagoa gainera, ezin direla egon akta desberdinak: aurkariek ezin dute esan gure aktek balio dute eta besteen aktek ez, hori ezin da; mahaitik, makinatik, akta bakarra ateratzen da han dauden guztientzat. Orduan, zer esan gura du eurak mundutik zabaltzen ari diren horrek, hau da, “gure aktek diote jipoia eman geniela, alde handiagatik irabazita”? Gezurra, txo, ez dago *zure* aktarik eta *nire* aktarik, akta bakarra baizik. Atzerriko botoen zenbaketa atzeratu egin zen arazo batzuk tar-teko, hori egia da, eta atzeratu egin ziren emaitzak ematerakoan, eta orduan, noski, hasi ziren esaten eskua sartzen ibili zirela. Esku-sartzerik ez dago hor, orde! Gutxiago oraindik hamasei auditoria egiten badira, ordezkari guztiak ere hor daudela. Baina hori da euren diskurtsoa.

Madurok-eta, susmatu zutenean zer ari zen gertatzen, “gu ez gara joko honetan olgetan ibiliko” esan zuten, “egiten duguna egiten dugula ere, tar-tean den aparatu mediatikoarekin, izorratuta aterako garelako”. Zer egin zu-ten orduan? Justizia Auzitegi Gorenera eroan auzia: auzitegi horri eskatu zio-ten gaia ikertzeko, haren esku utzi zituzten jasotako aktak ere. Auzitegiari eskatu zioten, horrez gain, eskatzeko beste alderdiei beste aktaren batzuk baldin bazeuzkaten hara eroateko. Hamar alderdik hartu zuten parte hautes-kunde horietan, eta bederatzi joan ziren Auzitegira. Nortzuk ez ziren joan? Corinaren alderdikoak: ez ziren epaitegira joan, eta hori begi-bistakoa da. Hauteskundeak irabaziz gero eta tranpak egin badituzte, hor daude legezko instantziak, berauetara joan eta esateko zer gertatu den. Aktetan jasotzen da han gertaturikoa, eta behin lekukoek haiek sinatutakoan, hor ez dago zere-ginik: hor esaten bada hamar boto nulu egon direla makina apurtu delako, hori aktan jasoko da, eta norberak esan dezake hamar boto horiek norbera-ren aldekoak direla eta kontu hori aztertzea eta behar den moduan ikertzea nahi dela. Hori da alderdi serio batek egiten duena, baina horrelakorik ez zu-ten inoiz egin: inoiz ez zuten erakutsi gauza argirik, erakutsi zituzten super-merkatuetan ateratzen diren tiket luze horien gisako batzuk, QR kode ba-tzuekin.

Venezuelako chavistak QR kode horiek ikusten hasi ziren eta egin kontu QR batean Illinoiseko bizartegi baten datuak ageri zirela, kar-kar-kar, horre-lako gauzak... Epaitegira edo bertako instantzietara joan beharrean, Ameri-

⁵⁴ Sarreran esandako moduan, 2025eko ekainean eginikoa da elkarriketa hau; urte bereko abenduan Bakearen Nobel Saria jaso zuen Maria Corina Machadok (1967), chavismoaren oposi-zioko lider zela.

ketako Estatuaren Erakundera (AEE) joan ziren: Almagro, beti Venezuelaren aurka egon den kolpista,⁵⁵ han esaten, “geuk irabazi dugu, hemen ditugu benetako aktak”. Pentsa zer egin behar den argitzeko zer gertatu zen hor, zenbat denbora behar izan dudan nik zuei hor zer gertatu zen argitzeko. Eurek, berriz, esaldi bakarrarekin mundua dute euren alde: “Iruzurra izan zen, jipoi galanta emanez irabazi genien”. Zergatik? Beste herrialdeetan *boletak* erabiltzen dituztelako, eta horietan izan daiteke akta desberdinak edo horrelako kontuak egotea, baina Venezuelan hori ezin da, hori ezin da. Venezuela ezin da irakurri Europatik ohiko erreferentzia akademikoekin. Ados nago demokrazia eskatzearekin, chavistek akats asko egin dituzte, baina ezin da horri begira bakarrik geratu, besteek egunero zenbat txerrikeria egiten duten aintzat hartu barik.

Kanpoko hedabideetan ez da inoiz topatuko Venezuelaren inguruko albiste positiborik, bat bera ere ez, inoiz ez da gauza onik gertatzen Venezuelan. Baina herrialde ederra da, eder-ederra! Horregatik hasi naiz esaten zelan alemana bertan geratu zen... Eta hau argi geratzea nahi nuke: ni ez nago alderdi batean, ez naiz ez chavista, ez oposizioko kide, ni filosofoa eta poeta baino ez naiz.

JM eta AZ: *Bi ardatz horiei helduko diegu, hain zuzen, hurrengo blokean: filosofiari eta poesiari.*

2. Poesia eta filosofia

2.1. Poesiaren bidean

JM eta AZ: *Poesia idazten, edo zeure burua poeta-bidean murgiltzen, noiz hasi zinen?*

JL: Eskola sasoian izan genuen poesia ezagutzeko aukera. Frankismo sasoian poetak galazota zeuden, eta horrek, ordea, gazteei aurkakoa egitea eragin zien. Baina, egia esateko, ezagututako lehen poetak ez ziren euskaldunak. Pablo Neruda,⁵⁶ adibidez, frankismoan onartezina. Federico García Lorca⁵⁷ edo Miguel Hernández⁵⁸ ezkutuan ezagututako beste poeta batzuk ziren. Euskal giroan, niretzat behintzat, garrantzi handikoak izan ziren Ez Dok Amairu

⁵⁵ Luis Almagro Lemes (1963) politikari uruguaiarra da, 2015-2025 artean Ameriketako Estatuaren Erakundeke idazkari orokorra izan zena.

⁵⁶ Pablo Neruda (1904-1973) poeta eta politikari txiletarra zen, Alderdi Komunistako kide.

⁵⁷ Federico García Lorca (1898-1936) poeta, narratzaile eta antzerkigile granadarra zen. Espainiako Gerra Zibilean fusilatu zuten.

⁵⁸ Miguel Hernández Gilabert (1910-1942) gaztelaniaz idazten zuen poeta valentziarra zen. Herriaren poeta edota poeta artzain legez ezaguna. Kartzelan hil zen.

mugimendukoak,⁵⁹ euskaraz abesten, mintzatzen, euskara zabaltzen. Beste bat Joan Manuel Serrat⁶⁰ zen. Donostian, Urumea inguruan, gure eskolatik hurbil zegoen EUTGra ihes egiten genuen Serrat eta beste entzutera.

Atmosfera berezia sortu zen sasoi hartan. Poesia politikaren instrumentu gisa ageri zen. Euskal poesia, niretzat behintzat, aurkitzen zaila zen. Nik ez nuen Aresti nor zen jakin, esaterako; gerora ezagutu nuen. Niretzako aurki-kuntzarik miresgarriena, alaiagarriena, *Pott banda*⁶¹ izan zen: Atxaga, Sarri-nandia... Euskaraz egindako poesiara hurbiltzen hasi nintzen horren bidez.

Baina hori gauza bat da, eta norberak poesiari ekitea, poeta izateko bo-kazioa izatea, beste bat. Askotan galdetu didate poesia eta filosofia, bi-biak, landu izanaz. Zelan da hori? Hasieran funtsezko ezer esatea zaila egiten zi-tzaidan, baina urteetan egindako bidearekin argi daukat gizakiak zentzurako bide bi asmatu dituela. Bat poesia da eta bestea, filosofia. Bide bi dira, baina toki batera iristeko. Zein da leku hori? Zentzuaren eremua. Gizakia zentzua-ren izakia da, eta, esan bezala, bide bi horietatik zentzurantz zuzentzen da.

Horregatik, zentzurik gabe ez dago poesiarik. Ea, beraz, baten batzuk konturatzen diren behingoz! Poesia zentzua daukan eta forma hartzen duen esan nahia, esan beharra, da. Bestela esanda, poesia zeresana eta horri adie-razpidea ematen dion forma da, zentzuzkoa, betiere. Eta filosofiak ere zen-tzuarekin konpromisoa dauka.

Nire ustez, gizakia ezin da poesia eta filosofia barik bizi, zentzurik gabe ezin delako izan. Horra hor, hortaz, egin didazuen galderari erantzuna.

JM eta AZ: *Zeugan, beraz, poeta eta filosofo sena batera sortu ziren?*

JL: Poesian hasi orduko, filosofiaren arloan ibilitakoa nintzen. Nire lehe-nengo tesia *El método en Marx*⁶² izan zen, eta, esan behar ez nukeen arren, orduko Venezuelako Ekialdeko Unibertsitatean hura egitea proiektu ausarta izan zen. Arazoetako bat zen demokratek ez zutela horrelako gairik onartzen. Filosofian, hortaz, trebetasun gehiagorik hasi nintzen. Baina poesia barruan dago beti.

Nik gaztelaniaz honako hitz hau erabiltzen dut: *estro*.⁶³ Animaliak iza-teko eta izaten jarraitzeko daukan barne-indarra da. Indar erotikoa da. Eta

⁵⁹ *Ez Dok Amairu* (1965-1972) euskal kulturaren mugimendu abangoardista zen.

⁶⁰ Joan Manuel Serrat i Teresa (Bartzelona, 1943) gaztelaniaz eta katalanez oholtza askotan abeslari ibilitakoa da.

⁶¹ *Pott Banda* (1977-1980) euskal literatura talde abangoardista zen, *Pott* izeneko aldizkaria (1978-1980) argitaratu zuena.

⁶² *El método en Marx* (2013) Venezuelako Ekialdeko Unibertsitatean Soziologia lizentzia lor-tzeko Landak, 1980an, eginiko tesi-lana izan zen.

⁶³ Grezierazko *oistros* hitzetik: inspirazio edo goiargi poetikoari deritzo, poesiarako musaren arnas edo zitzadari, baita ugaltunek ugaltzeko sasoiaren duten araldiari ere.

horrek filosofiarekin lotura zuzena dauka. Izan ere, ezin zaigu ahaztu, Sokratesen pentsamenduaren erakusle, Platonen *Sinposioan*⁶⁴ dagoen mezu garrantzitsua: filosofiaren jatorria zein den.

Nondik irteten da edozein pertsonak “mundua pentsatu behar dugu”, “filosofia egin behar dugu” esateko indarra? Hasiko gara munduaz ardurazten eta arrazoiak ematen, dauzkagun galderei erantzunak ematen... baina nondik irteten da hori? Zein da horren jatorria? Nork eman du horretarako indarra? Nondik datorkigu egun argiz, argiontzi batez, jendez beteta dagoen plazara pertsona bila joateko gogo?⁶⁵ Hori egiteko nork eman dizu eskubide edota zilegitasuna? Nondik irteten da hori? *Sinposioan* esan bezala, Eros da horren jatorria.⁶⁶

Galdera hori egin behar dugu: nondik datorkigu hau? Ohiko filosofoak hori ez du inoiz ere galdetzen. Egungo akademiaren korrontean *eroso* sartuta dagoenak ez du galdetzen. Baina galdezka hasiz gero, zer erantzun daukagu?

Poesian *estro* esan dut nik, baina filosofian Platonek, *eros*. Gu animaliak gara, baita pertsonak ere. Biak. Animaliatasunaz eta gizatasunaz ahaztu egiten zaigun oreka egin behar dugu. Eta hor dago eros. Indar horretara, iturri horretara, joan daiteke gizakia berriztatzerara, ugaltzerara, baina baita gizaki egitera ere. Nire ustez, Sokratesen argitasun handienetakoa da indar hori sublimatu egin daitekeela. Eta gure apustua horixe da: piztiaren indarra arrazoi-menaren mailara igo eta sistematikoki landu. Nola? Dialektikaren bidez. Eskailera edo harmailak bezala, pausoz pauso, animaliakieria izan daitekeen animaliatasunetik gizatasunera. Filosofoaren lana indar biologiko hori arrazoimenaren gorengo mailara eramatea da.

Zertarako? Bide horrek helburu handia dauka, ikaragarria gainera: egia absolutua ikustea. Hori da *episteme*. Baina ez da erraza ulertzea Sokratesek eta Platonek *doxaren* aurka jartzen duten *episteme*. Nire uste apalean, *theoria* da: egia absolutuaren begiraldi edo ikuskizuna.⁶⁷ Eta lorpen edo eginkizun horren ondoren esan daiteke filosofoa benetakoa dela. Sokratesek eta Platonek esanahi hori ematen dute: *benetako filosofo*.⁶⁸ Sofistak eta besteak ez dira

⁶⁴ Platonen *Sinposioa* Jesus Mari Arrojeriak eman zuen euskaraz, 2003an, Jakin Irakurgaiak sailean. Lehenago Jokin Zaitegi Plazaolak eman zuen, 1975ean, *Oturuntza* izenez.

⁶⁵ Azken itauna Diogenes Sinopekkoa (412-323) filosofo zinikoaren eginkizun edo pasadizo ezaguna da, Diogenes Laerziok *Filosofoen bizitzak* (VI, 41) obran jasoa.

⁶⁶ Eros edo Maitasunaren jainkoaren mitoaz dihardu Platonek *Sinposioan* (203-204), gizakiak jakituriarekiko duen gogoaz argitzeko.

⁶⁷ *Doxa* gorputzaren zentzumenen bidez eratutako ezagutza edo ustea da; *theoria* edo kontenplazioaren bidez arimak lortutako ezagutza, berriz, *episteme*.

⁶⁸ Platonek Sokratesen ahotan ipini zituen *Fedonen* (63-69) maila gorenera heldutako filosofoaren ezaugarriak: hil aurretik heriotzaren bidean trebatua izatea, purifikazioaren eta bertutearen bidez, arimari gorputzaren mugetatik haragoko jakituria eman ondoren. Liburua Jokin Zaitegi Plazaolak eman zuen euskaraz, 1978an, *Faidon* izenburuarekin, *Kriton* lanarekin batera.

benetako filosofoak. Antza daukate, baina ez dira. Planteamenduak arazoak eragin ditzake, badakigu, baina hor dugu, eta gaian sartuta dagoenak badaki zer esan nahi duen.

Hori baino urrunago ezin da joan, egia esan. Nor da, beraz, filosofo, benetako filosofo? Egia kontenplatzeko gai dena, egiaren ikuskizuna izateko gai dena. Horren esanahi praktikoa zera da: filosofoa behar diren galderak egin eta behar diren erantzunak emateko gaitasuna duena da. Hori da *benetako* filosofo, munduaren arrazoia ematen duena; *logon didonai*, errealitatearen “arrazoia eman”. Eta hori erosetik dator. Inork ez du baimen berezirik, beraz, plazara irten eta “hau pentsatu”, “horrekin kontuz”, “hori esan duzu, baina beste hau ere kontuan hartu” esateko. Inork ez du indar erotikoa arrazoimenez erabiltzeko baimenik behar.

Poesian ere hori gertatzen da. Poetak ezin du poesiarik gogorik gabe egin.

2.2. Filosofiaren bidean

JM eta AZ: *Filosofiari ekiteko gogo, hortaz, noiz agertu zitzaizun?*

JL: Betidanik, gaztetatik. Batxiler sasoian nengoenean atsegin handiz heldu nion filosofiari, eta nire zaletasuna hori izango zela jakin nuen. Ikasketak zuzentzeko jasotako aholkua ingeniari kimikoa izatea izan zen, kar-kar, eta hor urtebete galdu nuen. Filosofiarako bokazioaren kontzientzia indartu zen, ordea.

Poesiarako zaletasuna ere baneukan. Beti izan dut hitzekiko eta literaturarekiko miresmena eta joera. Baina poesia idazteko ausardia ez zen hain erraz etorri. Filosofia, bestalde, ahalik eta arinen hasi nintzen egiten, eta lehenengo pausorik handiena lehen esandako Marxen azterketa izan zen. Gero sartu nintzen, askoz sakonago eta askoz serioago, filosofia benetan ikasten. Lehen idatzi hartatik hurrengora, gutxienez hamar urte igaro ziren. Hamar urte haietan maisutza egiten aritu nintzen, lan egun erdiz egiten nuen bitartean, ikasturte bakoitzean ikastaro gutxi harturik. Nekez baina beti aurrera egin nuen. Lan haren emaitza, gerora berridatzia, *Poética* izeneko liburua izan zen.⁶⁹ Hor daude poesia eta filosofia batuta. Poesia aztergai, benetako ikuspegi filosofikoz.

Ondoren, munduaren egoera ikusirik, etikaren gaineko gogoeta egiteko beharizana etorri zitzaidan. Beste arlo bat da, eta hor sartzen da *Éticas de crisis* (2012) obra, eta hor sartzen da filosofia bizimodu den ideia. Eredu horre-

Geroago, 2005ean, Jesus Mari Arrojeriak eman zuen, *Menon*, *Kratilo* eta *Fedro* lanekin batera, Klasikoak bilduman.

⁶⁹ Maisutza lortzeko tesi-lana da *Más allá de la palabra. Para la topología del poema* (1994). Izen berarekin argitaratu zuen 1996an, eta, berridatzi ondoren, *Poética* izenez, 2002an.

tan murgiltzeko oso garrantzitsua izan zen niretzat Pierre Hadot filosofoa,⁷⁰ orduan ia inork ere ezagutzen ez zuena. Haren lana honako pentsamendu honekin irakurri nuen: “Antzinakoek gure arazo berberak bizi zituzten”. Esentzialki gure arazoak direnak; hau da, giza arazoak. Zergatik ahaztu eta baztertuko ditugu antzinako pentsalariak, beraz?

Krisiaren ideiak niri ez dit ezer berezirik esaten, bene-benetan gainbeheran baikaude, krisian ez. Programa politikoak euren baitan hartu dituzten pentsamendu filosofikoak, indartsuenak, XVIII. eta XIX. mendekoak dira: liberalismoa, marxismoa, anarkismoa... Oraindik jende asko hor sartuta dago, diskurtso horiek berritzen. Ez dut izenik aipatuko, baina hor ari dira, pentsamendu kritiko eta iraultzailea berriztu nahian. Hor dago, nire ustez, gainbehera. Hortik ezin da inora iritsi. Beste itzuli bat egiteko baino ez du balio, astoak errotari legez. Gauzak berritzekotan, askotan sustrai edo funts barik esaten dira, masa komunikabideak eta argitaletxeak tarteko direla. Eta hor dago jendea! Hori da egungo akademia eta zabalkundeko filosofia. Nik ez dut neure burua hor kokatu. Nire ustez, horrek ez du balio, baliorik ez du. Benetako filosofia beste inon egosi behar da. Antzinakoei berriz entzuteak balio handia dauka, ordea, eta gauza askotan garaikideak zaizkigu. Arlo horretako beste lan bat, plazara ekarri dudan azkena, Platonen gainekoa da.⁷¹

Ni inork estutzen edo larritzen banau, nire filosofia hurbilena zein den esan dezadan, Sokratesen pentsamendua esango nuke. Baina kritikoki hartuta, betiere. Platonekin nahasmen itzela dago, ordea. Askok aipatzen dute Platon hark zer esan zuen jakin barik, edo ondo jakin barik behintzat. Oraingoan ere ez dut izenik esango, baina Platonez zabaldutako ideiak ez dauka zerikusirik harekin. Hara, ez dut aditzera eman nahi Platonen politika osoa hartu behar dugunik, baina gure alde leudekeen gauza asko esaten ditu. Baina ahalegin handiagoa egin beharko genuke zer eta nola, zein une eta tesuingurutan, esaten zuen jakiteko.

Azkenaldian etikara jo dut, beraz, baina poesia inoiz utzi barik. Beti ari naiz poesia idazten edo poesiaren kritika egiten.

2.3. Filosofia bizimodu

JM eta AZ: *Filosofia bizimodu zaizunez, antzinako pentsalariengandik zeure bizimodura zer ekarri duzu?*

JL: Begira, poesiaren eremutik erantzungo dizut lehenengo. Hobe esan, hitzei diedan maitasunetik. Poeta naizen aldetik, hitzekin mokofina naiz. Ni-

⁷⁰ Pierre Hadot (1922-2010) filosofo eta filologo frantziarra zen, antzinako klasikoan aditua.

⁷¹ *Platón: la filosofía como ciencia política* (2025).

retzat hitza atsegina da. Eta horregatik, adibidez, Lekeition *bentana zarratu* entzuten dudanean, ezin dut jasan. Hainbeste al da *leihoa itxi* esatea? Horretarako ahalegina egitea? Hitza gozatu egin behar da. Baina horretarako kontzientzia izan behar da. Eta humanismoa horixe da. Horregatik, hitza baztertzen duen humanismoa *humanismo* izena merezi ez duena da, nire ustez. Orain daukaguna hori da, hitza eta pentsamendua baztertuta. Pragmatikoki erabiltzen den hizkuntza, erabilerak determinatua. Ez, kontxo! Horren garrantzia ez dut ukatuko, noski, baina benetako galdera honako hau da: noren erabilera? Astapotroarena? Inoiz landu ez denarena? Inoiz galdetu ez duenarena? Inoiz ezer hobetzeko interesik erakutsi ez duenarena? Horren hizkuntza izan behar dut nik ere? Ni ez nago horrekin ados. Ez da purismo kontua, gozamina baizik. Hitzak gozamina dauka! Entzun egiten den hitzak atsegina eman behar duelako!

Orain, zuen galderari zuzen helduz, nik filosofian ez dut inoiz ezer egin niretzat ona, baliagarria edo sinesgarria ez denik. Nire irizpidea hori da. Landutako filosofia, harekin ados egon ez arren, beti elkarrizketa aberasgarriarako hartzea da gakoa. Adibidez, nire kasuan, Schopenhauer. Gurean, UNAMen, Filosofia Eskolan, Schopenhauerren gaineko seminario iraunkorra daukat. Zergatik? Filosofian nire ere du delako? Ez, ez da. Baina lehengora joanda, XVIII. eta XIX. mendeetako pentsamenduetan itzulinguruka ari direnak go-goan hartuz: Schopenhauer irakurriko balute, ezingo lukete esaten dutena esan. Izenik ez dut esango, baina mugimenduren bat bai. Errealismo berria, adibidez. Horren oinarrian dauden arazoak landu zituztenak, arazo horiei erantzun onak eman zizkietenak, irakurriko balituzte, ezingo lirateke hasi hori guztia izango ez balitz legez. Hutsune hori estaltzen laguntzen dut, nire xumetasunean. Beste pentsalari batzuekin berdin. Guztiek esan zituzten gauza baliotsuak, baina haien eta gure artean hutsuneak daude. Egoera horretan ari naiz ni *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa*⁷² (1819) ikasleekin irakurtzen, Schopenhauerrek zer esan zuen jakin dezaten. Ez harekin ados egon daitezen, zer esan zuen jakin dezaten baizik. Lerroz lerro, letraz letra.

Beste seminario bat daukat, Platonen *Errepublikari* buruz.⁷³ Hamabi urte daramatzat eta ez gara IX. liburura heldu. Nire irakasle-lana hori da: hutsuneak betetzea. Schopenhauer eta Platon ez ezagutzea hutsune oso handiak direlako. Jakin egin behar da, benetan jakin. Mundua ez da Hegel edo Marx bakarrik. Mundua ez da hor hasi edota bukatu. Eta lan hori egiten dut sinesen dudalako. Sinetsi lehenengo, eta gero, bai, nire bizitzan, ahal dudana, sartu. Filosofiak ni neu hobetu nau.

Zergatik? Arrazoimena hobeto erabiltzen dudalako eta elkarrizketarako jarrera landu. Eta, eguneroko bizimoduan, ez daukat luxurik, irabazitako di-

⁷² Xabier Mendiguren Bereziartuk eman zuen euskaraz, 1999an.

⁷³ *Errepublika* edo *Politeia* Juan Jose Pujanak eman zuen euskaraz, 1993an.

ruaren zati handia Venezuelako hurbilekoei ematen diet, Mexikon izorratuta dauden talde batzuei laguntzen diet... Horretan nabil. Horiek dira filosofia-tik ikasitako orientazioak. Filosofiak bizimodu hobea izaten lagundu dit.

2.4. Humanismoa

JM eta AZ: *Humanismoari, hortaz, garrantzi handia ematen diozu?*

JL: Arazo handia daukagu munduaren deshumanizazioarekin. Lehenik eta behin, gizakia baztertzen ari gara, makinaren alde egiteko. Horrek ondorio oso larriak ekarriko ditu, baina inon ez dut ikusten horren aurkako ahotsik. Inon ere ez. Makinak gizakiaren duintasuna zapaltzen ari dira, eta duintasun horren galera, deshumanizazio hori, arriskurik handienetakoa da. Bestalde, kultura galtzen ari gara. Gizakiak egiten duen guztia kultura dela esaten dugu, baina kontuz ibili behar gara horrekin. Ez da egia. Venezuelen esaten den moduan: “maila batzuek hil egiten dute”.⁷⁴ Gizakia ezin da kultura barik bizi, eta kulturaren gainbehera ikusten ari gara, deshumanizazioa hori ere. Jendeak hizkuntzari garrantzirik ez ematea, edo zaporea galtzea, edo tradizioa galtzea gainbehera da. Ezaugarri asko ditugu deshumanizazioa dugula jakin dezagun.

Diagnostiko hori benetakoa bada, zer egingo dugu? Eskuartekoa bertan behera utzi eta aurrera egin? Ala munduarekin eta gizakiarekin beste konpromiso bat erakutsi behar dugu? Ni bigarren bidean nago, eta, hortaz, uste dut tradizioz gizakiaz zer esan den ezagutu egin behar dela. Gizakiaren duintasunaz zer esan den babestu, landu eta aldarrikatu behar da.

Zergatik ari da humanismoa makaltzen? Gizakiaren gainean ez dugulako galdetzen, gizakia ez delako gogoetagai. Ez dugu gizakia zer den galdetzen. Antzinako galdera hori ez dugu egiten. Baina tradizioan asko dira galdera hori egin eta erantzun dutenak. Horiek ezagutu behar ditugu.

Errenazimentuan maila gorenetera iritsi zirelakoan nago. Eta haiek ezagutu behar genituzke. Berriz diot: zuzenean ados egoteko ez, ikasteko baizik. Antzeko arazoei zelan erantzun zieten ikus dezagun. Errenazentisten iritziz, gizakiaren ezaugarriarik handiena da askea izatea. Gainerako izakien artean, bere tokia aukeratzeko ahalmena izatea. Gizakiak bere burua egiteko erronka dauka: *autopoiesis*. Hor dago, haientzat, gizakiaren duintasunaren ezaugarriarik handiena.⁷⁵

Baina hori ezin da ulertu eta bultzatu kultura mailan, hizkuntzan, pentsamenduan eta heziketan, jarrera hori ez badago. Gizaki izateagatik gizaki

⁷⁴ [hay niveles que matan]. Hau da, edozerk ez du balio.

⁷⁵ Landak *Humanismos primordiales* (2024) liburuan landu zuen gai hori.

orok duen boterea —lehen esandako indarra— aberasteko lan harrigarria egin zuten Errenazimentuan, adibidez, kultura mailan gehiago izan gaitezen. Hori da, nire ustez, benetako humanismoa, bai giza duintasuna, bai giza galdera gogoeta-bide duena, eta kulturaren eremuan ahalik eta lanik handiena eskatzen duena. Inoiz ere konforme ez dagoena, beti gauza hobeak egitera irekita. Eta horren esanahia zera da: ez du berdin balio Sofoklesen tragedia batek eta Televisako telenobela batek. Postmodernistek berdin dela esaten dute, baina ez.

Hortaz, deshumanizazioaren aurrean, humanistok mezu itzela dugu. Makinaren, telefonoaren eta pantailaren aurrean zeozer egin da, eta gehiago egin liteke.

JM eta AZ: *Mexikon humanismoa zer bide egiten ari da egun?*

JL: Humanismoa bultzatzen duten bi fenomeno gertatu dira. Bat, filosofiararen eremuan, mexikar filosofiararen aldarrikapena. Aztertzen eta ikertzen ari dira, eta argi ikusi dute humanista den tradizio propioa dutela. Salamancako Eskola —Francisco de Vitoria, Francisco Suárez eta beste—⁷⁶ oso garrantzitsua izan zen, eta haren bidez Mexikon pentsamendu humanista sartu zen. Lehenengo eta behin, bertakoak arimadunak eta gizakiak zirela esanez. Hori, lehenengoz, haiei esker izan zen. Gero norabide arantzatsua izan zuen, Bartolomé de las Casasek⁷⁷ eta bestek egindako gauza asko gaitzesgarriak izan baitziren.

Bestalde, Europaren eragina beti egon arren, bertan egindako gogoeta filosofikoa dago. Mexikoko independentzia apaizek zuzendu zuten. Hidalgo eta Morelos, biak apaizak ziren.⁷⁸ Erlijioaren eta ilustrazioaren bidez humanismoa azaldu zen, eta harekin batera nazio proiektua. Arazo handiekin, noski, inkongruentzia askorekin, haien gerrillek indarkeria izugarria erabili baitzuten. Heriotza, odola, zapalketa... Independentzia horrek zerikusi gutxi dauka Hego Amerikako independentziekin.

Eta jauzi handia eginda, López Obrador⁷⁹ dugu. Problematikoa da. Ez dauka oinarri akademiko sendorik, eta historia bere erara irakurri du. Irakur-

⁷⁶ Salamancako Eskola XVI. eta XVII. mendeetan nazioarteko zuzenbidearen eta ekonomia moralaren gainean gogoeta egindako hainbat teologo eskolastikok osatu zuten. Oinarri intelektuala Francisco de Vitoria (1483-1546) dominikarrak jarri zuen, pentsamendu humanistan errotutako pentsalariak. Francisco Suárez (1548-1617) aurrekoaren lerroan pentsamendu eskolastikoa garatu zuen jesuita zen.

⁷⁷ Bartolomé de las Casas (1484-1566) Ameriketako biztanleen aurka konkistatzaileek egindako bidegabekerien salatzaile nagusi izan zen.

⁷⁸ Miguel Hidalgo y Costilla (1753-1811) eta Jose Maria Morelos (1765-1815) mexikar apaiz eta militar abertzaleak izan ziren. Mexikoko Independentzia Gerraren lehen saioa gidatu zuen lehenak; bigarren saioan nabarmendu zen bigarrena.

⁷⁹ Andrés Manuel López Obrador (1953) Mexikoko presidente izan zen 2018-2024 bitartean. Morena (Movimiento Regeneración Nacional) alderdia sortu zuen.

keta horretan oinarritzen da bere Laugarren Eraldaketa proiektua. Proiektu horrek, hark esanda, konpromiso humanista dauka, eta humanismoa gai gisa berpiztu nahi du. *Humanismos primordiales* liburuaren argitaletxea, CONACYT, Obrador baino lehen Consejo Nacional de Ciencia y Tecnología zen, humanitateei inolako tokirik egin gabe. Obrador agintean jarririk, Consejo Nacional de Humanidades, Ciencias y Tecnologías⁸⁰ bihurtu zen. Ez dut esan nahi dena argia denik. Zer esan nahi du benetan Lopez Obradorrek “humanismo” dioenean? Ez dago argi. Beraz, jende asko ari da ahoa hitz horrekin betetzen, baina zer esan nahi duten galdetuz gero... Izan ere, nora jozen du horrek? Gehienetan humanitarismora. Humanismora ez, humanitarismora baizik. Ez da berdin. Jende xumearen duintasuna aldarrikatzen dute: guztion onerako txiroak lehenengo. Ados. Baina zer da duintasuna? Zergatik dute duintasuna? Ondo eta sakon azaltzen jakin behar da. Baina, oro har, humanismoa daukagu. Komunitateren bati zeozer gertatzen bazaio, lagundu egin behar zaio. Lehen ez zitzaiolako laguntzen, gainera.

Baina, dena den, hiru korronte nagusi, esandako hiru korronteak, ari dira Mexikon humanismoa bultzatzen. Eta hori ez dut beste inon ikusten.

2.5. Arizmendiarieta

JM eta AZ: Gurean, deshumanizazioaren aurrean, Jose Mari Arizmendiarietak egin zuen lan handia.⁸¹ Arizmendiarietaren ondarea ere sakon aztertutakoa zara, gainera. Zer ekarpen egin diezaioke gaur egun haren diskurtsoak humanismoari? Zure senide batzuk mugimendu kooperatiboan buru-belarri aritu izan ziren berarekin...

JL: Deshumanizazioaren aurrean humanismo berria eraikitzea dagokigu, bai. Kooperatibismoari dagokionez, Javier Erdozia Landa⁸² nire lehengusu oso maitea kooperatibetako zuzendaritzan ibili zen. Hala eta guztiz, ezingo nuke esan horren inguruko ideia zehatzik dudarik.

Nork lagundu zidan niri Arizmendiarieta ezagutzen? Joxe Azurmendik, 2004an, Gorostizaren itzulpena egiten ibili nintzenean. Beragatik daukat nik *El hombre cooperativo* (1984) liburua,⁸³ Arizmendiarietaren pentsamendu eta ibileren ingurukoa. Horrekin hasi nintzen ni jabetzen benetan zer zegoen hor. Orain Jonen [Mentxakatorre] liburuak⁸⁴ ere asko lagundu dit, beharbada

⁸⁰ 2025eko urtarrilaren 1ean, Secretaría de Ciencia, Humanidades, Tecnología e Innovación bihurtu zen.

⁸¹ Jose Mari Arizmendiarieta Madariaga (1915-1976) Arrasateko esperientzia kooperatiboaren eragile eta apaiz katolikoa zen.

⁸² Javier Erdozia Landa (1935-2024) Arrasateko esperientzia kooperatiboko kide eta euskaltzain urgazlea zen.

⁸³ Joxe Azurmendiren doktoretza-tesiaren emaitza.

⁸⁴ *Arizmendiarieta, gizagile eta herrigile* (2024).

ez horrenbeste ikuspegi sakona ulertzen, baina bai gauza praktiko eta egunerokoez jabetzen, haren bizitza eta gauzak. Halan eta guztiz, gure denboran Arizmendiarieta ez zen inon aipatzen, Arrasaten bertan bai agian, baina handik kanpora nik neuk behintzat ez nuen sentitzen haren presentziarik gu ikasle ginenean, ez Bizkaian, ez Gipuzkoan. Orduan nik ez nuen izan haren irudi berezirik, gero izan dira kontu horiek.

Nik uste dut merezi duela gauza batzuk aipatzea; hauek ziur aski esan izan dituzte beste batzuek, baina nire ustez puntu batzuk mahai gainean jarri behar dira, oraingo egoera kontuan hartuta. Puntu bat da Arizmendiarietak gaurkotasuna daukala, eta puntu garrantzitsua da hau. Zergatik? Arizmendiarietak, nire ustez, bere pertsonan, bere bizitzan, humanismoa gorpuzten duelako. Bera idazle soila izan balitz, kooperatibismoaren alde idazten zuena, liburu batzuk atera eta ikastaro batzuk ematen zituen... Hau da, bera sartu izan ez balitz lan hori egitera, bere proiektua ez zatekeen ezer izango. Hor badago beste puntu bat, humanismoan oinarritutako ikuskera bat: pertsonaren duintasuna eta langileen duintasuna. Nire ustez meritu itzela dauka langileen seme gazteak eskolaratu izanak, eskolan ikas zitzaten baliozko ezagutzak. Hori proiektu batean sartzea, proiektu hori euren lanaren bidez sostengatuta eta enpresa-egitura emanda, eta, gainera, hori ondo egitea eta berau Euskal Herrian zein munduko leku askotan zabaltzea... Zer gehiago behar da, txo? Garrantzi handiagoa dauka, gainera, hori zein unetan gertatu zen kontuan hartzen badugu: 1936ko gerraostean, bere aurka zeuden gauza askoren aurrean —ia fusilatu egin zuten—, bere lana beti susmopean zela... Hala eta guztiz ere, aurrera jotzea eta gauzak hain indartsu egitea... *Chapeau*.

Beste puntu garrantzitsu bat da egoismoaren aurka kooperatibismoak asko egin dezakeela. Badago ona den indibidualismoa, baina egoismoa, ordea, etikoki ez da ona. Zein da ona den indibidualismoa? Autonomia etikoa gorpuzten duen pertsonarena, bere kabuz pentsatzen duenarena, etikan oinarritutako bizimodua daukanarena. Hori autonomoa izanik baino ezin da lortu. Eduki daiteke sinesmena, konpromiso politikoa... baina talde, mugimendu edo komunitate batean sartu eta zure nortasuna hor galdu eta urtzen bada, niretzat behintzat, etikatik ikusita, horrek ez du merezi. Arizmendiarietak bultzatutako kooperatibismoak, aldiz, nortasuna errespetatzen du, baina komunitatea ahaztu barik; are gehiago, berau kontuan edukita. Oreka lortu behar dugu geure nortasun autonomoaren eta komunitatearen artean: nortasun bakarrak, komunitate barik, ez du balio, hori gezurrezkoa da; eta komunitateak ez badu errespetatzen norberaren autonomia, hori totalitarismoa da, diktadura, gauza kaltegarria.

Nire ustez, kooperatibismoak oreka hori errazten du. Tamalez ez dut ezagutzen enpresa kooperatiborik barrutik, ez naiz inoiz horrelako talderen batean izan. Ezagutzen ditut Ameriketako indigena komunitate batzuk, Venezuelako: hain daude izorratuta, hain jasotzen dituzte zigor gogorrak... Horrek

jendea batu egiten du, eta hor ikusten ditut nik gauza horiek. Kooperatibismoak, proiektu modura horrela bizitzeko eta munduan horrela izateko, babilio handia dauka gaur egun, egoismoa egun indar betean dabilelako, zentzua daukan edonork ikus dezakeen moduan. Egoismoa, gainera, sustatu egiten dute, egoismoan sustraituta dagoen sistema daukagulako. Hori galbidea da, eta horren aurrean ez badugu ezer egiten, zein izango da gizakiaren eta gizartearen etorkizuna? Beti telefonoaren aurrean dauden monada batzuk, berau barik bizitzen ez dakitenak? Gainera, gero adimen artifizialak irudi batzuk ekartzen ditu eta ez dakigu zein den egiazkoa eta zein gezurrezkoa...

Hori ikusita, ahalegin handiak egin behar ditugu komunitatearen alde, norberaren nortasun autonomoa errespetatuta. Behin hori esanda, filosofian eta pentsamenduan oro har, tontakeria da guztiok puntu guztietan ados egon behar dugunik pentsatzea: Arizmendiarretak bere ikuskera zeukan, guk beste bat daukagu, baina badiugu puntu batzuk elkarrekin topo egiteko. Hori da egin behar dena, eta ez abadea zelako edo hau edo bestegatik aitzakia bila jardun. Gauza horiek ez dute baliorik, horiek ez dira esentzialak. Beste gauza batzuek dute balioa, eta horietan zentratu beharko ginateke.

Erreferentziak

- AZURMENDI, Joxe. 1984. *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*. Arrasate: Lan Kide Aurrezkia. Berrargitaratua in 1992, Aretxabaleta: Azatza; hemen eskuragarri: <https://arizmendiarieta.org/wp-content/uploads/2017/09/elhombre.pdf>
- DIOGENES LAERZIO. *Vidas y opiniones de los filósofos ilustres*. Gaztelaniara Carlos García Guallek itzulua eta editatua. Madril: Alianza, 2007. Hemen eskuragarri: <https://seminariofilantunc.wordpress.com/wp-content/uploads/2013/11/diogeneslaerciovidasyopinionesdelosfilosofosilustres.pdf>
- GOROSTIZA, Jose. 1939. *Muerte sin fin*. Mexiko B. F.: Ediciones R. Loera y Chávez. [Euskarazko itzulpenak: 2009. *Amaibako heriotza*. Toluca: Bonobos eta Bilbo: Labayru Ikastegia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa. Itzultzailea: Josu Landa]. <https://argitalpenak.labayru.eus/fso/item/document/126/Muerte%20sin%20fin%20Amaibako%20Heriotza%20-%20separata%2047.pdf>
- LANDA, Josu. 1996. *Más allá de la palabra. Para la topología del poema*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa, Filosofia eta Letren Fakultatea. Berrargitaratua in 1997, Caracas: La Casa de Andrés Bello.
- LANDA, Josu. 1999. *Zarandona*. Mexiko Hiria: Mexikoko Euskal Etxea. [Euskarazko itzulpena: 2000. *Zarandona*. Tafalla: Txalaparta. Itzultzailea: Josu Landa].
- LANDA, Josu. 2002. *Poética*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica. Berrargitaratua in 2015, Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica eta in 2023, Venezuelako Valentzia: Caraboboko Unibertsitatearen argitaletxea; hemen eskuragarri: <https://poesia.uc.edu.ve/wp-content/uploads/2023/11/Poetica-Josu-Landa-Ediciones-POE-SIA-Nov2023.pdf>
- LANDA, Josu. 2012. "El caminar de la poesía". Ricardo Venegasek eginiko elkarrizketa. *Siempre!*, 2012, uztailak 14. Hemen eskuragarri: <https://www.siempre.mx/2012/07/el-caminar-de-la-poesia>

- LANDA, Josu. 2012. *Éticas de crisis: cinismo, epicureísmo, estoicismo*. Venezuelako Bartzelona: Fondo Editorial del Caribe; Guanajato: Guanajatoko Unibertsitatea eta Venezuelako Bartzelona: Paso de Barca. Berrargitaratua in 2015, Venezuelako Bartzelona: Paso de Barca.
- LANDA, Josu. 2013. *El método en Marx*. Caracas: Monte Ávila Editores Latinoamericana.
- LANDA, Josu. 2024. *Humanismos primordiales*. Mexiko Hiria: Conahcyt-Fondo de Cultura Económica.
- LANDA, Josu. 2025. *Platón: la filosofía como ciencia política*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
- MENTXAKATORRE, Jon. 2024. *Arizmendiarieta, gizagile eta herrigile*. Bilbo: IDTP. Hemen eskuragarri: <https://arizmendiarietafundazioa.org/img/2025/02/arizmendiarieta-gizagile-ta-herrigile.pdf>
- PAZ, Octavio. 1957. *Piedra de sol*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica. [Euskarazko itzulpena: 1997. *Eguzki harria*. Mexiko B. F.: Instituto Vasco-Mexicano de Desarrollo. Itzultzailea: Josu Landa].
- PLATON. *Faidon*. Euskarara Jokin Zaitegi Plazaolak itzulia. Usurbil: Izarra, 1978 eta *Fedon*. Euskarara Jesus Mari Arrojeriak itzulia. Bilbo: Klasikoak, 2005.
- PLATON. *Errepublik*a. Euskarara Juan Jose Pujanak itzulia. Bilbo: Klasikoak, 1993.
- PLATON. *Oturuntza*. Euskarara Jokin Zaitegi Plazaolak itzulia. Usurbil: Izarra, 1975 eta *Sinposioa*. Euskarara Jesus Mari Arrojeriak itzulia. Donostia: Jakin, 2003.
- SCHOPENHAUER, Arthur. 1819. *Die Welt als Wille und Vorstellung*. Leipzig: Brockhaus. [Euskarazko itzulpena: 1999. *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa*. Bilbo: Klasikoak. Itzultzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu].
- UGALDE, Martin. 1974. *Síntesis de la historia del País Vasco*. Madril: Seminarios y Ediciones. Hemen eskuragarri: <https://jakin.eus/show/7be149436dad0dcd160c1f26ea-5100f8a72794cb>
- UGALDE, Martin. 1990. *Itzulera baten historia*. Donostia: Elkar.